



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko martxoaren 5a

15 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Belate Mendateko obren zenbait gorabeherari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Basozainei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- “Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoreendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Lotzako putzuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Europako Batasuneko transferentzien esparru orokorraren azterketari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egin (18. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau-Emaileak:

- 21/1997 Foru Dekretua, otsailaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (31. or.).

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoarekin bat, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Legea

ZIOEN ADIERAZPENA

Nafarroako Parlamentuak Industri Politikarako eta Inbertsioa eta Enplegua Sustatzeko Koiuntura Neurriei buruzko Araua eman zuenetik, 1982ko ekainean hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateak lan eskerga egin du industrietarako lurak sustatzen Nafarroako zenbait alderditan, eta horren barrenean ere sartzen da Udal eta Kontzejuei emandako laguntza tokian tokiko udalerrietan industrietarako lurak sor ditzaten, horretarako korriturik gabeko aurrerakinak emanez.

Nafarroako Gobernuak zuzenean sustatutako industrialdeak orain arte izan dira eskualdeko izaerakoak, eta horregatik udalerrri izaerako poligonoak sustatu ziren osagarri gisa, arestiko Arauko 14. artikuluan Udal eta Kontzejuen ekimenak bultzatzeko laguntzak hasiera batez ezarrita. Laguntza horien zenbatekoak Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean aldizka aldatu izan dira.

Azkenik, ikusirik gero eta eskari haundiago bati oraingo baliabide publikoekin behar bezala ezin erantzun zaiola eta proiektu zenbaiten bideragarritasun ekonomikoa ezin bermatu zela, 1993ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko

ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legearen bidez ezarri zen, 35.5 artikuluan hain zuzen ere, gastuetarako konpromezu gehiago ezin hartuko zirela "industrietarako udal lurzorua sustatzeko laguntzen planeko industrietarako lurzorua sustatzeko" Proiektuaren kargura, industri politikarako Inbertsioa eta Enplegua sustatzeko koiuntura-neurriei buruzko Arauko 14. artikuluan ezarri eta arautzen baitira. Halaber, Foru Lege horrek agindua eman zuen deialdi bat egiteko, alegia, toki entitate interesatuek eskabideak aurkez zitzaten beste "udal ekimeneko industri lurzorua sustatzeko Jarduketa Plan" baterako, eta horiek ikusita, Nafarroako Gobernuak jarduketan Plan urteanitzaz gauzatu eta Parlamentuan aurkez dezan.

1993ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez deialdia egin zen eta haren ondorioz bidezko da beste arautegi bat ezartzea toki entitateek industrietarako lurzorua sortzeko jaso ditzaketan laguntza publikoak arautzeko, gaur egungo inguruabar eta beharrei egokitzeko helburuz.

Orain onesten den berrikuspenak, alde batetik, hobeki zehaztuko du udaletako zein ekintza lagundu behar diren, eta bestetik finkatu egiten du zein diren "herri mailako jarduera ekonomikoak jartzeko poligonoak", hau da, berrikuspen honek gainditu egiten du orain arteko irizpide murriztailea zeinetan industri erabileretarako bakarrik onartzen baitzen. Horrela bada, poligono horiek mesedegarri dirateke hiriguneetako karga arintzeko, izan ere zenbait jarduera desegokiro kokatuak izateagatik nahiz instalazioak haunditu nahi dituztelako, eraman eginen dira poligonoetara. Halaber, poligono horietan kokatu daitezke herri mailako beharrei ongi egokitzen zaizkien jarduerak (tailerrak, biltegiak, industria xeheak, zerbitzuak, etab.).

Poligonoa egin behar bada lur batean, lur horrek behar du nahitaez industri edo zerbitzuetarako lurzoru urbanizagarriaren kalifikaziokoa izan, edo izaera hori behar du lortu, eta gainera bermatu behar da lur horiek udalarenak direla, eta horre-

tarako desjabetzaren sistema erabiliko da, beharrezkoa bada.

Bestetik ere, lortu nahi da proiektu horiek gutxienez baldintza eta ezaugarri batzuk betetzea, haien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa bermatzeko, eta horregatik hain zuzen ere ezartzen da lurzatiaren eskariak gutxienez behar duela izan lurzati guztien 100eko 30ekoa, beti ere proiektua egokitu beharko delarik egiazko eskarierara, eta behar diren ekarpen ekonomikoak jarriko dira enpresa eskatzaileak eta udal sustatzaileak elkartzeko asmoz, horrela bermatuko baita, Nafarroako Gobernuaren laguntzekin batera, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa.

Aurreikusten diren laguntzak, egokienak direla uste baita, funtsean hitzartzeko kreditu edo maileguen korrituak berdintzeko adinako dirulaguntzak dira, haren puska nagusia obren kostuaren 100eko 50 izanen baita, edo 100eko 60 poligonoa alditan egiten baldin bada, eta horrela, finantzaketaren gainerakoa enpresa eskatzaileen eta proiektua sustatu duen udalaren artean partatu da.

Halaber, Foru Lege honetan ezarritako laguntzen arautegian sartzeko hasierako erabakiak bere baitan biltzen du sustapen proiektuaren osotasuna (proiektu teknikoak eta urbanizazio eta azpiegitura lanak), eta gero batean egiten da, egiazko kostuak zein diren jakinik, onuren zehaztapen zehatza.

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako toki entitateendako laguntzen irispidea, modua eta baldintzak arautzea, laguntza horiek herri mailako jardura ekonomikoak paratzeko poligonoen urbanizazio proiektuak egin eta aurrera eramateko.

2. artikulua. Herri mailako jardura ekonomikoetarako poligonoak: nolokotasunak eta xedea.

Foru Lege honen ondorioetarako, herri mailako jardura ekonomikoetarako poligonoak dira hiriguneak arintzeko asmoz egiten direnak, egungo jardueren lekualdaketa sustatuz, kokagune desegokian daudelako edo haien instalazioak haunditu nahi dituztelako. Halaber, aurreikusten da proiektuak onartzea, herri mailako bizimodu eta beharrek lotura handiak dituztenak, alegia, tailerrak, biltegiak, industria xeheak eta horrelatsukoak, edo agian, kanpoko enpresen proiektuak bertan hartzeko.

3. artikulua. Baldintzak.

Nafarroako toki entitateak dira laguntza hauen helburu eta, beraz, onuradun izan daitezke, baldin eta jardura ekonomikoetarako poligonoak susta-

tu nahi badituzte, eta ondoko baldintzen barreran badira:

a) Poligonoa jarri nahi den lurzorua hirilurzorua edota lurzoru urbanizagarria izatea, indarra duen udal planeamenduan industria nahiz zerbitzuetarako.

b) Lurzoruren bat ukitua suertatzen bada, indarrean dagoen planeamendua ezartzen duen jarduketara sistema desjabetzarenarena izatea, dagoen exekuzio unitaterako, menpekotzak eta kanpo zerbitzuak barne, hori toki entitatearena ez bada.

c) Hasiera batez antolatu behar den azalera herrian dauden beharrek eta egiazko eskakizunekin bat etortzea, lurzatietatik heldu den azalera garbia 20.000 m² izatea gutxi gorabehera.

Salbuespen gisa, azalera handiagoak ere onar daitezke enpresa baten lekualdaketa edota handipena beharrezkoa denean eta jabeen aldetik lekualdaketa nahiz handipena egiteko konprometuz formala dagoenean.

d) Lurzati eskaria arrazoizkoa izatea, hain zuzen ere aurreikusitako urbanizazioaren lehenbiziko fasean, poligonoko lurzati garbieraren 100eko 30 gutxienez hasiera batez okupatzeko adinakoa.

e) Toki entitateak konprometuzua hartzea jarduketaren ondorioz aterako diren lurzatiak ez dituela salduko, inolaz ere, kostua baino merkeago, dirulaguntzak eta aurreikusten diren hobari fiskalak kontutan hartu gabe.

f) Toki Administrazioako Departamentuak oniritzia ematea, poligonoa sustatzearen ondorioz heldu diren gastuei aurre egiteko, toki entitateak ahalmen ekonomikoa nahikoa baduela azalduz.

4. artikulua. Onura aplikagarriak.

Nafarroako Gobernuaren laguntzak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren bidez, herri mailako jardura ekonomikoetarako poligonoak sustatzen dituzten Nafarroako toki entitateei emanen dizkienak, honakoak dira:

a) 100eko 70ko dirulaguntza, exekuzio unitatea erabat garatzeko behar diren proiektuen kosturako, beti ere Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 89, 98 eta 99. artikuluetan arautua dagoenaren arabera.

b) Kredituak sor ditzakeen korrituak estaltzeko dirulaguntza, baldin eta haren puska nagusia Poligonoaren urbanizazio lanen kostuaren 100eko 50 baldin bada eta, hala balitz, lurra erosteko kos-

tua. Korritu-tasa izanen da Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuarekin lankidetzaz hitzarmena espreski sinatua duten entitate finantzarioekin hitzartutakoa bera, hamar urteko epean, eta horietako lehenbiziko biak gabealdikoak izanik eta puska nagusia hurrengo zortzietan amortizatuko delarik seihileko berdinetan ordainketak eginez.

Lanak zenbait alditan egiten direnean, dirulaguntza kalkulatu da lehenbiziko aldiaren kostuaren 100eko 60aren gainean eta, hala balitz, lurra erosteko kostuaren gainean.

Poligonoa urbanizatzeko lehenbiziko aldi hori egin beharko da beti ere haren azalera osoaren 100eko 60 gainditu gabe.

c) Poligonoak sortzeko helburuz egindako lurzoru aldaketaren ondorioz toki entitateari aplikatzen zaion Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuotaren 100eko 95eko hoberia, baita toki entitateek bertan kokatzen diren enpresei egiten dizkieten gainekoak.

5. artikulua. Gaurko udal poligonoetako azpiegituren eskasiak eta mentsak.

Arestiko artikuluko a) eta b) letretan aipatutako laguntzak aplikatzen ahal dira egun kontsolidaturik dauden udal poligonoetako azpiegitura eta urbanizazio mailako eskasiak eta mentsak ezartzeko, eta horrela balitz, erreferentziako maileguaren puska nagusia hobekuntzarako azpiegituren kostuaren 100eko 40ra irits daiteke.

Poligono kontsolidatuak izanen dira lurzatiaren azalera osoaren 100eko 70 gutxienez industriek edota jarduera ekonomikoek hartua baldin bada.

6. artikulua. Deialdiak.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak urtero egiten du deialdia Foru Lege honetan aurreikusitako laguntzak emateko, eta horretarako eskatzen den dokumentazioa aurkezteko egunak eta epeak finkatuko ditu.

7. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.

Toki entitate interesatuek, deialdian zehaztutako epearen barrenean, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, gutxienez:

a) Ukitu behar diren lurren kalifikazioa egiaztatzen duen ziurtagiria eta toki entitatearen planeamenduan aurreikusita dagoen jarduketako sistema, eta bertan zehaztu beharko da lur horiek herrilurak diren ala ez.

b) Dagoen lurzati-eskariari buruzko datuak eta eskatzaileen konpromezuaren zenbaterainokoa,

konpromezu horiek biltzen dituzten agiriak erantsiko direlarik, baita proposa litekeen balizko kudeaketa modua edo nork bere gain hartzen dituen diru-ekarpenak ere.

c) Toki entitatearen erabakia, izan daitezkeen lurzatiak saltzeko konpromezua hartuko duela egiaztatzen duena, beti ere kostuaren zenbatekotik, jasotako dirulaguntzak kenduta, inolaz ere jaitsi gabe.

d) Balorazio txosten tekniko eta bideragarritasun aurreazterketa, eta bertan era arrazoitu eta zehaztuan ondoko inguruabarrei buruz aurreikusten diren epeak bildu behar dira: proiektuak esleitzea eta idaztea, hirigintzako tramiteak, behar diren lurra erostea eta lanen esleipena eta exekuzioa, baita aurreikusten diren kostuak eta dirusarreraren eta ordainketen behin-behineko plana ere, finantzaketa iturriak zehaztuz.

– Hala balitz, urbanizazio lanen proiektua, behar bezala onetsita.

8. artikulua. Tramitazioa eta laguntzak emateko lehentasun irizpideak.

1.- Deialdiaren epea bukatuta, espediente bakoitzean aurkeztutako dokumentazioa Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko Zerbitzu Teknikoek begiratu dute, eskatutako baldintzak eta proiektuaren bideragarritasuna betetzen direla bermatzeko.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak laguntzak emateari buruzko erabakia eman baino lehen, Toki Administrazioiko Departamentuari aginduzko txostena eskatu beharko zaio poligonoak sortuko dituen obligazioei aurre egiteko eskatzaileak duen gaitasun ekonomikoari buruz. Delako txostena loteslea izanen da negatiboa baldin bada.

Ondorio horietarako, gaitasun ekonomikoa finkatu ahal izateko ondoko zera hauek hartuko dira kontutan:

a) Eskabideak egin aurreko urteko kontuen itxieran toki entitateak izandako aurrezki garbia, hau da, ohiko dirusarreraren (1.tik 5. kapituluera) eta ohiko gastuen (1, 2, 3, 4 eta 9. kapituluak) arteko aldea.

b) Lurzatiak saltzeagatik izandako dirusarrerak, eta horiek zehaztuko dira hasierako urte bakoitzeko aurreikusitako salmenten 100eko 10 gehituta.

c) Poligonoa finantzatzeko entitate finantzarioekin sinatu beharreko kredituetatik heldu diren ordainketak.

d) Toki entitateak egindako bestelako inbertsioetatik heldu diren konpromezuak.

2.- Ekitaldi bakoitzeko gastuen aurrekontuan horretarako kontsignaturiko zenbatekoen arabera, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak laguntzen ematea ebatziko du, ondoko hautapen irizpideei jarraikiz:

a) Egun dauden jarduerak lekuz aldatu beharra, bai kokagune desegokian daudelako bai jarduera handitu behar delako, baita jarduera berriak kokatzeko dauden eskariak ere.

b) Lurzatiak eskatu dituztenen konpromezua- ren zenbaterainokoa.

c) Lurzati- egiazko eskariak duen eragina lanpostuak mantendu edota berriak sortzeko.

d) Proiektua Foru Lege honetan ezarritako irizpideekin bat datorren ala ez, ondoko alor hauetan: proiektua, neurrietan edo haren aldi desberdinetan, dauden egiazko eskakizunei, eta lurren, urbanizazio obren eta azpiegituren kostuak jaisteari hobeto egokitzea.

e) Proiektuaren garapenerako aurreikusitako epe laburragoak, hura lehenago exekutatzeko eta laguntza hauen helburu diren fondoak arinago erabiltzeko.

f) Eskualdeko poligonoetako lurzatiak eskuratzeko beste aukerarik ez izatea alde horretan.

9. artikulua. Laguntzak ematea eta ordaintzea.

1. Arestiko artikuluan aipatu diren txostenak ikusita, eta bertan zehazten diren irizpideekin bat etorritik, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak erabakia hartuko du honako laguntzen araubidean deialdiaren bidez toki entitateek aurkeztutako proiektuak sartuko diren ala ez.

Sartzen badira behin-behineko sartuko dira eta 4. artikuluko a) eta b) letretan azaltzen diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa zehaztuko da.

Aipatu dirulaguntzen zenbatekoa ondoko eran finkatuko da:

a) Hirigintzako dokumentuen eta proiektuen kostuaren 100eko 70eko dirulaguntzari dagokionez, 7. artikuluan aipatu den dokumentaziorako aurreikusten den kostua hartuko da erreferentziazat, beti ere Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak egiaztatuta.

b) Urbanizazio obrendako dirulaguntza hasiera batez emateko kontutan hartuko da 7. artikuluan

aipatu den balorazio txosten teknikoaren aurrekontua eta horri gehituko zaio, hala balitz, erositako lurren gutxi gorabeherako kostua, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurretik ateratako balorazioaren arabera, eskualdeko industrialdeetan antzeko egoeretan izandako salneurriak ikusita.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da erreferentziako kredituaren puska nagusiari, eta haren iraunaldian zehar, korritu-tasa aplikatuz, hain zuzen ere finantza entitateekin sinatutako lankidetzak hitzarmenean kalkulua egiteko unean indarra duen korritu-tasa aplikatuz.

2. Proiektuen idazketaren eta gainerako hirigintzako dokumentuen kostua zein den behin jakinez gero, hasiera batez emandako laguntzak behin betikoak izanen dira eta une horretantxe eginen dira behar diren doikuntzak, idazketaren kostuak hasieran aurreikusitakoak baino txikiagoak izan baldin badira.

Dirulaguntza horren ordainketa eginen da baldin eta idatzitako proiektu edota dokumentu bakoitza oso-osorik badago, eta aurretik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aldeko txostena eman badu.

3. Urbanizazio obren dirulaguntza behin betikoa izanen da horiek esleitu ondoren, beti ere toki entitateak egiaztatzen baldin badu ondoko baldintzak bete dituela:

a) Ukitutako lur eta zerbitzuen eskuragarritasuna, obren bideragarritasuna bermatzeko.

b) Lurzatiak eskatu dituztenen konpromezu formala, poligonoan sortzen diren lurzati- en 100eko 30 gutxienez eskuratuko dituztela, hitzartutako salneurria, egutegia eta ordaintzeko modua zehaztuz.

Nolanahi ere den, obren esleipenaren salneurria hasieran aurreikusitako kostua baino txikiagoa baldin bada, behar diren doikuntzak eginen dira dirulaguntza esleipenaren salneurriari egokitzeko.

Dirulaguntza honen ordainketa eginen da urbanizazio lanak hasi eta gero.

10. artikulua. Emandako laguntzak galdu edo murriztea, ez-betetze kasuan.

Onuradun ateratzen diren toki entitateek Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan aurkeztu beharko dute, lanak bukatu ondoren, haien burutzea eta kostua egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Aipatu Departamentuak edozein unetan eska dezake egoki juzkatzen dituen argibideak, obren

burutzeari buruz nahiz poligonoko lurzatiei salmentei buruz.

Laguntzak emateko ebazpenetan finkatutako baldintzak erabat nahiz hein batean ez betetzeak, edo Foru Lege honetan eskatutako baldintzen bat ez betetzeak, berekin ekar dezake emandako laguntzak galtzea edo murriztea eta, hala bada, itzultzea.

Horrelako ebazpenik bada, arrazoiak eman beharko dira eta dagokion entitateari behar bezala jakinarazi.

Xedapen Gehigarria.

Foru Lege honetan aurreikusiriko laguntzen onuradun diren Toki Entitateek, laguntzen ondo-riotarako, jarduera ekonomikoetako poligonoen sustapena Toki Entitateen beraiei edo Nafarroako Foru Komunitatearen Kapital Publikoko Sozietateekin hitzartzen ahalko dute. Haiek osaturik egonen dira poligono horiek kudeatzen eta burutzen eraginkortasunez laguntzeko, horretarako ematen zaizkien onurak haietara bidaliko direlarik.

Xedapen Iragankorra

Toki entitateak Foru Lege honetan ezarritako onuradun izan daitezke, hain zuzen ere 1993ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 30eko 9/1993 Foru Legeak indarra hartu ondotik hasiak baldin bazituzten industrietarako udal lurzorua sustatzeko ekintzak eta Foru

Lege honek indarra hartu aurretik proiektu eta obretan inbertsioak eginak baldin bazituzten.

Aipatu ekintzek bete beharko dituzte Foru Lege honetan ezarritako beharkizun eta baldintzak eta horretarako egiten diren deialdietara agertu beharko dute.

Xedapen Indargabetzailea

Indargabetu egin dira Industri Politikarako eta Inbertsioa eta Enplegua Sustatzeko Koiuntura Neurriei buruzko Arauko 14. artikulua eta Foru Lege honi aurka egiten dion xedapen oro.

Azken Xedapenak

Lehenbizikoa. Foru Lege hau aplikatetik sortzen ahal diren gastuak "jarduera ekonomikoetako udal poligonoendako laguntzak" izeneko 81130-7600-5351 kontusailaren kontura egiten dira (98023-5 lerroa).

Bigarrena. Dagokion ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorretan kontsignatuko dira ordainketa-konpromezuak, hain zuzen ere Lege honen neurriak aplikatetik heldu daitezkeenak.

Hirugarrena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau betetzeko eta aurrera eramateko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Laugarrena. Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean berean.

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoarekin bat, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

Urbasako eta Andiako mendiek naturgune bat osatzen dute, geologia, biologia, ekologia, estetik, paisaje, arkeologia eta soziokultura aldetik balio multzo zabal batez hornitua.

Geologia aldetik, bi mendiek kararrizko mazizo zabal bat osatzen dute, morfoegitura bereziak

dituena Pirinio-Kantauriko eremuan. Faktore bioklimatikoek karst zabalean menderen mende egindako lanak paisaje mineral berezi bat taxutu dute eta, barrenetik, tamaina gaitzeko akuifero bat, interesgarria oso hurbileko populazio guneetako giza hornidurarako, Iruñea eta horren ingurunea barne. Horri zoru podsolidoen berezitasun edafologikoa erantsi behar zaio, bakarra baita Galiziakoekin batera penintsularen eremuan.

Biologiaren ikuspegitik, mendi horietan biltzen dira erregio eurosiberiar-atlantiarreko eta mediterraniar-iberiarreko bioaniztasunaren elementu biogeografiko endemiko bereizgarriak. Adierazgarri aipagarrien artean, ugatza, uhandre alpetarra eta bertako landareen zenbait taxon daude: *Scrophularia crithmifolia*, burundana subespeziea, *Cochlearia aragonensis*, navarrana subespeziea, *Genista eliasennenii*, *Arenaria vitoriana*, *Lathyrus vivantii*, *Narcissus varduliensis* eta *Dryopteris cartusiana*.

Ekologia aldetik, mendi hauetan Europako Elkartearen intereseko habitatak daude, hala deklaratu baitaude habitat naturalak eta basa fauna eta flora zaintzeko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horien artean, interes berezia dute pagadi azidofioloek, baso horiei lotutako txilardiek eta soilune eta harkaitzetako larreek.

Estetika aldetik, lurralde hori Nafarroa hezeko eta trantsizioko paisaje adierazgarrietako bat da, edertasun natural handikoa, mendez mende oihan eta larreen erabileraren bitartez areagotu dena, sistema erdinatural orekatu harmoniotsuak sortarazi baititu.

Ondare arkeologiko aberatsa gaur arte iraun duen antzinako artzain kulturaren lekukoa da, duen garrantzi historikoa oraindik aitortzeko badu ere.

Ezin da ahanzi Urbasako eta Andiako mendiak antzina-antzinako ondare historikoa direla Nafarroa osoarentzat. Horren administrazioa eta gestioa, alde batetik, Koroaren eta, ondoren, egungo Nafarroako Gobernura arte, Foru Erakundearen lanari esker etorri zaigu, eta, bestetik, Amekoako Limitaciones mendiko Administrazio Batzarreari esker. Mendez mende iraun duen tradiziozko entitateak da hori, Lege honek aitortu eta babesten dizkion ahalmen historikoak dituen, Nafarroako ohiturazko Zuzenbidearen muina delako.

Hain da oparoa bi mendi horietan bildutako balio natural anitza, ezen foru erakunde publikoen babes juridikoa behar baitute, naturgunearen kontserbazioa eta iraupena bermatuko badira. Horiek

baliabide naturalen erabilera ordenatuarekin bateagarriak dira sektore eta eragile sozialen bitartez.

Gehiago ere bada: lurralde hori babesteko arrazoi estrategikoa dago, erreserba natural horri darion uraren kalitatea segurtatzen delako, izan ere, haren erabilerak mendien muga fisikoetatik askoz haratago egiten baitu, nafar populazioaren gehiengo zabal batengana hedatzeko, hiriburuan eta ingurunean bizi dena ere hartuz.

Urbasako eta Andiako mendiak Parke Natural deklaratzeko figura juridiko egokiena da, ez bakarrik balore horiek edo uraren nahiz ekosistemen kontserbazioa identifikatzeko, baita plangintza eta gestio integral koherenteak bermatzeko, egungo eskaerak eta sor daitezkeenak bat etor daitezela.

Parke Naturalaren bitartez, gainera, gizarte nafar guztiak eredu garrantzitu duen aurreko belaunaldiak basoan egindako probetxamendu ordenatu eta arrazionala, gaur egun hain ohikoa dugun garapen jasagarriaren teoria ospetsua gauzatu eta aplikatu baitute aspalditik.

Gainera, Parke Naturala da eskualdeko biztanleek (Limitacionesko Batzarrea, Burunda Ibarra, Arañazko Komunitatea eta beste) mendez mende garatu duten erabilera eta gestiozko formula tradizionalak hobekien babesten dituen botere publikoen deklarazioa. Halaber, Parke Naturalak bultzatu eta handitzen du tradiziozko eta artisautzako sektoreek beraiek sortutako produktuen berezitasunaren ondoriozko balio ekonomikoa eta,aldi berean, erakargunea da kanpoko baliabide ekonomikoentzat mendi ingurura eta hirigune hurbilenetara gerturatzeko, eskualdeko garapen sozioekonomikorako dakarren onuraz gain.

Parke Naturalak 21.408 hektarea hartzen ditu denetara, honela banaturik: 4.700 hektarea Andiako mendian, 11.399 hektarea Urbasako mendian, Nafarroako Gobernuaren esku, 5.190 hektarea Limitaciones mendian, Erauldik eta Etxabarritik banandutako zatia barne dela, eta 119 hektarea Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserban.

Parke Naturala deklaratzeko, eremuko Natur Baliabideak Antolatzeke Plana prestatu eta onetsi behar zen, eta hori 1996ko uztailaren 1ean onetsitako Foru Dekretuaren bidez egin zen.

Bai deklarazioan, bai Parke Naturalaren kudeaketan, kontutan hartu dira, errespetatu eta babestu Limitaciones mendiko Batzarrearen eskubide historikoak, tradiziozko Batasun administratioba denez gero, baita Burunda eta Arañazko Komunitatearen eta Deierriko Udalaren eskubideak ere, Planaren arautegian propio bildutakoak, haren parte baitira aurrerantzean.

Limitaciones Mendiko Batzarreak kudeatuko du Parke Naturala bere lurraldean, eta Nafarroako Gobernuak gainerakoan, bi lurraldeok kudeatzeko mendez mende erabili diren formulei jarraipena emanez.

Urbasako eta Andiako mendiak kudeatzeko partaidetza sozialerako, Nafarroako Gobernuak Patronatu bat sortzeko asmoa du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, udal dermioa parkearen lurralde esparruaren barruan duten edo harekin mugak dituzten toki entitateen, Limitaciones mendiko Batzarrearen, Nafarroako Ingurugiro Kontseiluan ordezkariak dituzten elkar-te ekologisten, Urbasa eta Andiako Larre Batzarrearen eta Parke Naturalaren lurralde esparruan zuzenean interesatuta dauden beste sektoreen ordezkariak osaturik, erregelamendu bidez ezarriko den modu eta osaketarekin. Horrekin nafar guztien ondarea den eta Nafarroako Foru Komunitateak bere-berea duen naturgune honen gestio integrala, partaide bidezkoa, sendotzen da.

1. artikulua. Parke Natural deklaritzen da Urbasako eta Andiako mendiek, Limitaciones mendiak eta Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserbak (RN-14) osatutako eremua, muga hauek dituen:

– Iparraldeko muga: Urbasako eta Andiako mendien muga Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Ergoiena, Uharte-Arakil, Irañeta eta Arakilgo udal mugapeekin.

– Ekialdeko muga: Andiako mendiaren muga Ollaran eta Goñibarko udal dermioekin.

– Hegoaldeko muga, ekialdetik mendebaldera: Urbasako eta Andiako mendien muga Gesalatz, Lezaun eta Abartzuzako udal dermioekin, non Urbasako mendiaren muga utzi eta Ameskoako Limitacionesen hegoaldeko mugari jarraitzen baitio, Ameskoabarren, Eulate, Aranaratxe eta Larronako dermioekin muga eginez, Araba eta Nafarroa arteko muga administratiboraino.

– Mendebaldeko muga: Araba eta Nafarroa arteko muga.

2. artikulua. Natur Baliabideak Antolatzeko Planak, Nafarroako Gobernuak 1996ko uztailaren 1eko 267/1996 Foru Dekretuaren bidez onetsita-koak, arautuko du Urbasako eta Andiako Parke Naturala, baita hark izan ditzakeen aldaketek ere.

3. artikulua. Ameskoako Limitaciones mendiko Batzarreak bere esku izaten jarraituko du Urbasako Limitaciones mendia erabili eta kudeatzeko ahalmen historikoak.

2. Urbasa eta Andiako Larre Batzarreak, baita aitorturiko eskubide historikoei eusten dieten beste ente batzuek ere, kasuan kasuko jarduketa esparruaren barruan, egin izan dituzten moduan gorde eta zainduko dituzte haiek.

3. Aurreko bi ataletan aurreikusirik ez dagoen horretan, Nafarroako lurralde antolamendu eta hirigintzari eta naturguneei buruzko legeria orokorrekin bat jardungo da.

4. artikulua. 1. Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokio Parke Naturalaren kudeaketa Urbasako eta Andiako mendietan eta Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserban, Limitaciones mendiaren lurraldean izan ezik.

2. Limitaciones mendiko Batzarreari dagokio Parke Naturalaren kudeaketa Limitaciones mendiaren lurraldean eta, kasuan-kasuan, Ameskoako udalei.

Hori dela eta, Limitaciones mendiko Batzarrea izanen da Urbasako eta Andiako Parke Naturala kudeatuko duen organo administratiboa Limitaciones mendiaren lurraldean. Limitacionesko Batzarreak izanen ditu egungo antolamendu juridikoak Parke Naturalaletako gestio organoei ematen dizkien ahalmen eta eskumen administratibo guztiak.

3. Limitaciones mendian egin daitezkeen jarduera eta erabilera Limitaciones mendiko Batzarreak onetsitako Ordenantzei lotuko zaizkie, ordenantzak aurkeztu eta bi hilabeteko epean Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak haien legezkontasunari buruzko txostena eman ondoren.

Limitaciones mendiko Ordenantzek espazioak kontserbatzeko legeriak Erabilera eta Kudeaketa-ko Plan Zuzentzaileei emandako izaera eta ondorioak izanen dituzte.

4. Nafarroako Gobernuaren eta Limitacionesko Batzarrearen arteko lankidetzak eta kooperaziorako, bi erakundeek beren ordezkariak osatutako lankidetzak organoa sortu ahalko dute, bien adostasunarekin.

5. artikulua. 1. Kudeaketan parte hartu eta laguntzeko organo gisa, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Urbasako eta Andiako Parke Naturalaren barreneko eremuan, Patronatu bat sortuko du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria edo bere ordezkari agintaria buru dela, erregelamendu bidez ezarriko diren eginkizun eta osaketarekin.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, udal dermioa parkearen lurralde esparruaren barruan duten edo harekin mugak dituzten toki entitateen, Limitaciones mendiko Batzarrearen, Nafarroako Ingurugiro Kontseiluan ordezkariak dituzten elkarte ekologisten, Urbasa eta Andiako Larre Batzarrearen eta Foru Lege hone-tako 1. artikuluan zehazturiko lurralde esparruan zuzenean interesatuta dauden beste sektoreen ordezkariak osatuko dute Patronatua.

Azken Xedapenak

Lehena. 1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak behar diren ekimenak bultzatuko ditu Urbasako eta Andiako Parke Naturaleko Patronatua eratu dadin, urtebetean gehienez ere.

2. Natur Baliabideak Antolatzeko Plana garatzeko eta parkearen esparruan, Limitaciones mendia salbu, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Erabilera eta Kudeaketako Plan Zuzentzailea prestatuko du kasuan kasuko erabilpenean zuzenean esku sar-tzen duten sektoreek parte harturik.

Plan hori urtebeteko epearen barruan prestatu-ko da eta Nafarroako Gobernuak onetsiko du, Patronatuak txostena eman ondoren.

3. Limitaciones mendiko Batzarreak bere orde-nantzak berrikusiko ditu zentzuzko epean, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik. Epe hori Ordenantzen proiektua Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan, aginduzko txostena eman dezan, aurkeztu gabe iraganez gero, horrek errekerimendua egingen dio Batzarreari hiru hilabeteko epean aurkez dezan, eta hori egin gabe iraganez gero, Departamen-tuak subrogatuko du haren prestakuntzan eta Nafarroako Gobernuari igorriko dizkio Ordenan-tzak, onets ditzan.

Beti ere berrikusiriko Ordenantzak Urbasa eta Andiako Natur Baliabideak Antolatzeko Planari gaineratuko zaizkio.

Bigarrena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren xedapenak eman ditzan Foru Lege hau garatu eta betearazteko.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F Saila:
GALDERAK

Belate Mendateko obren zenbait gorabeherari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Belate Mendateko obren zenbait gorabeherari buruz egindako galde-
raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 28ko 65 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 21a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, hau izenpetzen duenak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iruñea-Frantzia N-121 errepideko Belate Mendateko obren zenbait gorabeherari buruz eginiko galderari dagokionez, erantzun hau gortzen du

1. N-121 Errepide Nazionalaren (Iruñea-Frantzia) Belate Mendateko obrak ondoren esaten diren zatietan banatu ziren:

1. zatia.- Arraizko Bentak-gurutzeko bihurtzea.
0. zatia.- Belateko tunela eta Sarbideak.
2. zatia.- Almandozko tunela eta Sarbideak.
3. zatia.- Almandozko saihesbidea.
4. zatia.- Berroeta-Zozaia.

Daukagun informazioaren arabera, duela urtebete baino gehiago egon beharko lukete bukatuta obra hauek, eta komunikabideei esker jakin dugu hainbat zailtasunek proiektu hauek betetzeko orduan azterapenak ekarri dituztela.

Lan hauek Nafarroako Gobernu Kontseilariak, Garraio eta Komunikazio Departamentua egiten ari den lanik garrantzizkoenak dira.

Lan hauei buruz, eta zati bakoitzaren kasuan, honako argibide hauek jakin nahi dira:

1.- Proiektua noiz egin zen, egileak nor diren eta egile hauek zer enpresa edo Erakundetakoak diren.

2.- Kontrata bidezko burutzearen aurrekontuaren hasierako kostua.

3.- Esleipen-sistema.

4.- Esleipen-jardunbideari hasiera eman zitzaion eguna.

5.- Lehiatu diren enpresak, eskaintza ekonomikoa eta proposatu den burutze-epaia.

6.- Eskaintzen azterketa: Enpresa bakoitzaren balorazio orokorra, irizpideen arabera.

7.- Esleipena behin betiko jaso duten enpresak, eta kontratatu den aurrekontua.

8.- Enpresa azpikontratatuak eta zer lan egiten duten.

9.- Obren zuinketa-akten data.

10.- Obren zuzendariak nortzuk diren eta zer enpresa edo erakundetakoak diren.

11.- Kontratuaren edo baldintza pleguaren arabera obrak noiz bukatu behar ziren.

12.- Administrazioak onartu dituen proiektu erreformatuak. Zioak eta aurrekontuak.

13.- Bai obra-zuzendaritzak eta bai Administrazioak salneurri kontraesankor bezala onartu dituzten obra-unitateen deskribapena eta kostua.

14.- Egiatagiriaren kopurua, datak eta aurrekontuak.

15.- Gaurko egunera arte zertifikatu den kontrata bidezko burutzearen aurrekontuak zenbat jotzen duen.

16.- Obren harrera egitea noizko espero den.

17.- Zirkulaziorako noiz irekiko den edo bukatu ez diren zatietan noizko aurreikusten den.

18.- Obrak betetzean atzerapena ekarri duten arrazoiak zeintzuk izan diren.

19.- Obra berandu bukatzeagatik dauden zehapenek, baldintza pleguak edo obren kontratuak ezartzen zutenaren arabera, zenbat jotzen duten.

Erantzuna: Arestian aipaturiko galderei erantzuteko, Departamentu honetan dagoen espedientearen kopia igortzen da, bakoitzari behar duen erantzuna ematen zaiolarik, "Belateko Mendatearen eraikuntza" obrak zatitzen diren tarte bakoitzean.

Hau jakinarazten dizut, Parlamentuko Erregelamenduko 181. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 15a

Herilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu espedientearen Foru Parlamentari jaun-andreen eusku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Basozainei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. 1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak basozainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak mendi zaindari eta azpizaindariei buruz eginiko galderari dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1. Gure Komunitatean zenbat basozain dagoen.

Nafarroan, berez, ez dago basozainik. Egia da, baina, izen hori oso zabaldua dagoela. 1898az geroztik, bi kidegoendako onetsiriko lehenengo erregelamenduan agertzen denez, Mendi Zaindariai eta Azpizaindariai daude. Gaurregun, Nafarroako funtzionarioen berezko antolamenduaren arabera, C eta D mailetan daude kokaturk, hurrenez hurren.

Kopuruari dagokioenez, hona hemen:

A) Zaindariai:

Zelaian: 15

Bulegoetan: 4

Egoera berezietan: 3

Iraupen luzeko baja: 1

Hutsik: 1

B) Azpizaindariai:

Zelaian (jardunean): 49

Hutsik eta iraupen luzeko bajak: 11

2.- Postuak non dauden eta zer herritan.

– *Aezkoan:*

Zaindari 1

Bi azpizaindari

– *Agoizko eskualdea:*

Zaindari bat

Hiru Azpizaindari

– *Basaburua:*

Azpizaindari bat

– *Sakana:*

Zaindari bat

Hiru Azpizaindari

– *Baztan:*

Zaindari bat

Hiru azpizaindari

– *Bortzirriak:*

Bi Azpizaindari

– *Malerreka:*

Zaindari bat

Hiru Azpizaindari

– *Lizarrerria:*

Zaindari bat

Hiru Azpizaindari

– *Ipar Lizarrerria:*

Zaindari bat
Lau Azpizaindari

– *Esteribar:*

Bi Azpizaindari

– *Irati:*

Zaindari bat
Azpizaindari bat

– *Leitzaldea*

Zaindari bat
Azpizaindari bat

– *Irunberriko eskualdea*

Bi Azpizaindari

– *Otsagabiako eskualdea*

Zaindari bat
Azpizaindari bat

– *Iruñerria:*

Zaindari bat
Bi Azpizaindari

– *Erronkaribar:*

Bi Azpizaindari

– *Zaraitzu Beherea:*

Bi Azpizaindari

– *Zangozeria:*

Zaindari bat

– *Tafallerria:*

Zaindari bat
Hiru Azpizaindari

– *Tutererria*

Zaindari bat
Hiru Azpizaindari

– *Ultzama:*

Zaindari bat
Hiru Azpizaindari

– *Urbasa*

Zaindari bat
Lau Azpizaindari

3.- Basozainaren eginkizunak

Mendi Zaindari eta Azpizaindariei buruzko 1898ko abuztuaren 10eko Erregelamenduak langile horien antolamendua eta haien eginbeharrak ezarri zituen.

Ordurez geroztik gauza batzuk eguneratu badira ere, ondoren ez da beste Erregelamendurik egin.

Zaindarien egitekoak hauexek dira:

– Zaindaritzako lana antolatzea

– Basoetako lanak ezartzea eta haien jarraipena egitea

– Prebentziorako oihangintza eta higaduraren aurkako borroka

– Oihan polizia lanak

– Toki enteei aholku teknikoak emateko zerbitzua

– Basoen izurrite eta gaisotasunak zaintzea.

Azpizaindarien, ekintzaren oinarrizko unitatea diren aldetik, Zaindarien agindurik, esleitzen zaizkien basozaintza arloko lan guztietan laguntzen dute.

4.- Zenbat basozain dagoen Aralarko mendietan.

Berez, Aralarko mendietan ez dago Zaindaririk edo Azpizaindirik. Lehenengo eta behin, Aralarko mendiak Basaburuko eskualdearen barruan daudelako eta, hortaz, eskualde horretako zaindaritza horren menpe daude. Bigarrenik, hain zuzen ere eskualde horrek langile gutxi dituelako eta horrek eragozten du pertsona bat bakarrik Aralarko mendiez arduratzea.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 14a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoreendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentariak “Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoreendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoreendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderari dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Kontu horren erabilpena arautzeko aplikatzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

Hona hemen kontusail horren erabilpena arautzen duten xedapenak:

– Foru Parlamentuak 1992ko ekainaren 23an harturiko erabakia, “Industri politikarako eta inbertsioa eta enplegua sustatzeko koiuntura-neurriei buruzko araua onartu zuena, VI Titulua: Kutsaduren aurkako inbertsioak.

– 4/1982 Foru Dekretua, irailaren 16koa, kutsaduraren aurkako laguntzei buruzko Erregelamendua, aurrekoa garatzen duena, onartzen duena.

-186/1991 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, Nafarroako industrietan ingurugiro auditoriak egiteko laguntzen ematea arautzen duena.

Epe honetan izaniko bilakaera teknologikoak eta Europako Batasuneko arauen anitzak, bai industriek bete beharreko baldintza teknikoak dagokionez, bai Estatuko eta erregioetako inguru-

girioren aldeko laguntzei buruzko zuzentzauei dagokionez, behartu dute Nafarroako Gobernua arau horiek eguneratzera eta, horrekin batera, arau guztiak araubide juridiko bakarrean bateratzera.

Horretarako, Gobernuak, 1996ko uztailaren 29an harturiko erabakiaren bidez, Nafarroako Ingurugiroaren Kontseiluak aho batez luzaturiko aldeko txostena ikusirik, beste Foru Dekretu bat onetsi zuen hasiera batez, industri jardueraren ingurugiro eragina gutxitu eta zuzentzeko inbertsioendako dirulaguntzak arautzeko. Testu hori Europako Batzordeko eskudun organoei igorri zaie, aginduzko jakinarazpenaren ondorioetarako. Organo horietatik oniritzia eta oharrak hartu eta gero, bidezko izanen da behin betikoz onestea eta, ondorioz, indarrean sartzea.

Laguntza horiek inbertsio batzuk biltzen dituzte indarra duen arauteriara egokitzeko edo eskura dagoen teknologiarik hoberena ezartzeko, gutxiendu, birziklatu, berrerabili edo baloratzeko, ekintza horiek betetze hutsekoen gaintik portzentia handiagoekin bereizten direlarik. Halaber, I + G proiektuak, ingurugiro auditoriak, ingurugiroa kudeatzeko sistemak eta informazio eta sentsibilizazio jarduerak ere biltzen dira. Azkenik, zoruak deskutsatzeko laguntzak arautzen dira.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpo ekarpen edo finantzaketaren bidez (bestelako erakundeen laguntzen bidez, kasu), kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

Ekitaldi honetan kontusail horren zenbatekoa ez da aldatu.

Adierazi beharra dago antzeko xedeekin aurrekontuan beste bi laguntza lerro daudela, legezko xedapen hauek arautzen dituztenak:

– Kalitatea, diseinua eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzek, Industri, Merkataritza eta Turismo Kontseilariak 1996ko martxoaren 21ean emaniko Foru Aginduaren bidez onetsiek.

– Husketen kalitatea hobetzen duten neurriak hartzeko laguntzek, Toki Administrazioako Kontseilariak ekainaren 3an emaniko 83/1996 Foru Aginduaren bidez onetsiek. Laguntza horiek, Nafarroa-

ko Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legean aurreikusiak daudenak. Saneamendurako Plan Zuzentzailearen kontu egiten dira eta Departamentuarekin koordinaturik ematen dira, Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuaren txosten loteslearen bidez.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik.

Kontusailak dauzkan 115 milioietatik, 1996rako eskura zegoen kopurua 106.170.208 pezetakoa zen. Izan ere, 1995eko ekitaldian konprometitua zegoena, Magnesitas de Navarran egin beharreko jarduketetarako, 8.829.792 pezetakoa zen.

4.- Industri husketak gutxiendu eta arazteko dirulaguntzen zerrenda. Esan bedi: noiz eskatu ziren, zer enpresa, entitate edo erakundek eskatu zituen, jarduketaren zehaztapen laburra, noiz eman ziren eta aipaturiko jarduketa bakoitza zer herritan egiten den.

Industri husketak gutxiendu eta arazteko emaniko dirulaguntzak, enpresaka, hauexek dira:

* *Calinsa (Tiebas)*

Eskaera eguna: 1996ko apirilaren 3a

Proiektuak enpresak Tiebasen duen kare lan-tegian aldatzea batzuk egin asmo ditu, hauts ekoizpena gutxientzeko eta beste neurri zuzentzaileak (iragazkiak) ezartzeko.

12.455.355 pezetako dirulaguntza, hots, diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehun 23, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1996ko ekainaren 24an emaniko Ebazpenaren bidez baimendua.

* *Bertako (Uharte)*

Eskaera eguna: 1996ko abuztuaren 5a

Proiektuak garraio pneumatikoa ezarri asmo du makina uhingiletik, makina trokelatzaileetatik eta errota ehotzailetik, kartoizko mozkinak zikloi bereizgarri batera eramaten eta trinkogailuetan deskargatzen direlarik.

2.217.508 pezetako dirulaguntza, hots, diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehun 23, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1996ko irialaren 23an emaniko Ebazpenaren bidez baimendua.

* *Harinera Vasco-Navarra, S.A. (Noain)*

Eskaera eguna: 1996ko urriaren 1a

Proiektuak mahuka iragazki ezarri asmo du eta instalazioetan sorturiko hutsa kentzeko, hartu eta bideratzeko sare bat ere bat.

1.147.500 pezetako dirulaguntza, hots, diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehun 15, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1996ko azaroaren 12an emaniko Ebazpenaren bidez baimendua.

* *AP Amortiguadores (Ororbia)*

Eskaera eguna: 1996ko irailaren 27a

Proiektuak kromatu lerroko gas ikuzkailuak eta trikloroetanoa darabilten zortzi ikuzkailu kendu eta haien ordezkari alkalino bat darabilten ikuzkailuak, ultrasoinu sistema batekin, ezarri asmo ditu.

8.840.100 pezetako dirulaguntza, hots, diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehun 23, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1996ko azaroaren 12an emaniko Ebazpenaren bidez baimendua.

* *B.S. Electrodomésticos (Ezkirotz)*

Eskaera eguna: 1996ko uztailaren 5a

Enpresak ingurugiroa kudeatzeko sistema ezarri du, barneko prestakuntza eta auditoriaren, kanpoko auditoriaren eta ingurugiro ziurtaginaren bidez.

3.772.491 pezetako dirulaguntza, hots, diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehun 21,3, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1996ko azaroaren 22an emaniko Ebazpenaren bidez baimendua.

* *Rohm & Haas España, S.A. (Tutera)*

Eskaera eguna: 1996ko abenduaren 10a

Enpresak ingurugiroa kudeatzeko sistema ezarri du, barneko prestakuntza eta auditoriaren, kanpoko auditoriaren eta ingurugiro ziurtaginaren bidez.

5.584.187 pezetako dirulaguntza, hots, diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehun 25, Ingurugiro Zuzendari Nagusiak 1996ko abenduaren 20an emaniko Ebazpenaren bidez baimendua.

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

1996ko ekitaldian ez da gastu-konpromezurik hartu 1997 eta 1998 urteetarako.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren babesean.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Lotzako putzuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentariak Lotzako putzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentariak Lotzako putzuan eginiko jarduketei buruz eginiko galderari, idatzizko erantzuna eskatu duenari, dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Zertan dautza zehazki Lotzako herritarrek ubideak zabaltzeko egin dituzten obrak?

Lotzako herritarrek drenajeak garbitu egin dituzte. Izan ere, horiek, iparretik hegora, eremu hezea zeharkatzen dute, ura sobera biltzea saihesteko, drenaje horiek edo huspideak beterik daudelako.

2.- Zer kalte eragin diete berroko ohiko baldintzei? Atzera egiten ahal dira?

Eraginiko kaltea drenajeen ibilbideetako eta bertan osatzen ziren ur-bilketa txikietako landaretza kentzea izan da, horrek bertako faunari eragin diolarik. Kaltea konpontzen ahal dela bistan da, alderdian ur asko baitago eta landaretza berez zuzpertzten baita. Begietarako eragina ere hilabete gutxi pasata ere desagertzen da.

3.- Ba ote du Lotzako putzuak babes araubide berezirik?

4.- Zer legeria da alderdi horretan aplikatzen, bi erabilerak elkarrekin bateragarri egiteko?

Alderdi horri Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legearen arabera zehatzago den araubide zehatzagoa aplikatzea deustan galarazi gabe, beharrezkoa balitz naturgunetzat jo litekeelarik, Lotzako Putzua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 37 artikuluko 1 eta

2 zenbakien arabera arautzen da. Horiek xedatzen dute:

“37. artikulua. Ur babestua.

1. Azaleko ura. Uren Legeak ubide edo erreten naturaltzat jotzen dituenak dira, eta ur korrante, eten nahiz etengabeetako bazter eta hegitzat edo aintzira eta urtegietakoa hondotzat, lur uhase eta eremu hezetzat jotakoak.

2. Babes erregimena.

Urari buruzko legeetan agindutakoa galarazi gabe ubide naturala babesteko eremu bat ezartzen da ur korranteetarako. Ubide ertzetik hasita neurtuko da, eta bazter bietan, ubide natural horrek puntu bakoitzean duen adinako zabalera izanen du. Hala ere, babes eremu hori ez da behin ere izanen 5 metro baino gutxiagokoa ez eta 50 metro baino gehiagokoa ere, bazter horietariko bakoitzean.

Aintzira, urtegi, eremu-uhaseak eta lur hezeak direlarik kontua, babes eremuak 50 metro izanen ditu ubide ertzetik neurtzen hasita..

a) Jarduera ez-erakuntzazkoak.

Oihana matarrasan moztea eta egurretan arietea debeku dira babes eremuko lehen bost metroetan, eta bai landaretza erretzea ere.

Zilegi izanen da babes eremuetan berekin lur mugimendua eta lur lantzea dakartzaten ekintzak baimentzea.

Gainerako jarduerak zilegi dira.”

b) Jarduera erakuntzazkoak.

Babes eremuetan zilegi dira hazlekuak eta berotegiak eta erlezaintzako instalazioak; zilegi da baimentzea arrain haztegiak, ibai ingurune gertaleku duten aisi eta kiroi jarduerekin lotutako eraikinak eta instalazioak, ibaien ingurunea gertaleku duten ekipamendu, dotazio edo zerbitzuetarako eraikin eta instalazioak, lan publikoak eta azpiegiturak gauzatu, zaindu, eta atenditzeko behar diren eraikin eta instalazioak.

Gainerako guziak debeku dira.

Gainera, Nafarroako Gobernuak Putzua eremu hezetzat jo du 1997ko urtarrilaren 13an izaniko bilkuran, Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko Lehen Xedapen Gehigarrian aipatzen den Nafarroako Eremu

Hezeen inbentarioan sartu da, horretarako ezarri-riko babes araubidea izanen duela.

5.- Hartu eta ateratzeko sistemaren kontrolaren bidez, posible da barradera bat egitea, alderdia zaintzeko behar den ur-mailari eusteko eta eurite garaian gehiegizko ura hustutzeko?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren xedea, aspaldidanik, lurrezko barradera eta hormigoizko gainezkabidea eremu hezeko bukaeran eraikitzea, istilduen dauden beheko kotetan, eta ur-bilketa kontrolatua ur-mailan, beste lurzatirik ez ureztatzeko, ur-irau- penik handienarakin, beharrezkoa izanen balitz, Aldapondoa erreka eremu hezean desbidertzeko, hori dena interesen adostasunean ezartzen denera egokiturik. Orain arte ezin izan dira barradera eta gainezkabidea eraiki aginduzkoa den udal baimena lortu ez delako.

6.- Zer beste ekintzak konpon ditzake natur ingurunean eginiko kalteak eta alderdiko erabilera- rak elkarrekin bateragarri egin?

Drenajeen garbiketarako eraginiko kalteak konpontzeko ekintzarik ezartzeko ez dago asmorik, berreskurapenak berezkoa izan behar du eta. Aztertu egin beharko da, ukituriko toki entitatearekin batera, zer ekintza buru daitezkeen nekazaritza, ehiza eta jokuak eremu hezea zaintzeko xedeekin bateragarri egiteko.

7.- Zer figurarekin aurreikusi asmo du Nafarroako Gobernuak nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak, alde batetik, eta kontserbazionismoak eta naturzaintzak, bestetik, elkarrekin bateragarri egiteko?

Erantzun honetako 4 zenbakian adierazi beza- la, Nafarroako Gobernuak, 1997ko urtarrilaren 13an egin bilkuran, Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea gartzeko asmoz, Nafarroako Eremu Hezeen Inbentarioa sortzen duen Foru Dekretua, haien artean Lotzako Putzua sartzen delarik. Foru Dekretu horretako artikuluetan inbentariaturiko eremu hezeak babesteko araubidea ezartzen da eta, hortaz ohiko erabilerak eremuaren zaintzarekin nola egin bateragarri.

8.- Horrelako obrak egitea beharrezkoa bada: zer neurri hartu beharko lirakeke obren burutzeak espezie haiei kalte eragitea saihesteko? Hala bada, noiz hasi asmo dira obra horiek? Zein izan liteke burutzeko epea?

Geroan obrek aurreko puntuetan ezarritakora egokitu beharko dute.

Bistan denez, eremu hezeko drenaje bideak zaindu egin beharko dira, sobratzen den ura husteko eginkizuna bete ahal dezaten. Horrek zenbait mantenimendu eta garbiketa lan beharko ditu, hala bada. Lan horien unean-unean dagoen behar- raren arabera eta ez alde aurretik ezarritako egu- tegiaren arabera burutuko dira.

Barraderako obrei dagokienez, Udalak azke- nean onartzen baditu, udan burutuko dira, ahal bada, ekintza horrek sor dezakeen eragina gutxitzeko.

Barraderako ekintzak, gainera, ura eremu heze horretara ura daramaten alderdietan besterik egitea dakar berarekin, ura doan tokiak bideratze- ko, saihestuko delarik, gainera, beste ureztalur batzuetan urak gainezka egitea.

9.- Beste obrarik egin nahi bada, zer inbertsio beharko litzateke?

Geroko obretan egin behar den inbertsioa ez dago zenbaturik, zenbatekoa burutu beharreko obren nolakoaren arabera izan baita. Nolanahi ere, azkenean burutu ez ziren barraderako lan horien aurrekontua 388.750 pezetakoa zen.

10.- Lotzako Putzuko alderdian erabilerak zehazki mugatzeak ba ote du oztopo fisikorik?

Tokiaren beraren antolamenduak eta artzain- tza, zaintza eta eman nahi zaizkien gainerako xedeek mugatuko dituzte Lotzako Putzuko erabi- lerak.

11.- Ba ote dago asmorik belar probetxamen- durik eskura dagoen azalera gutxitzeko? Zenbat hektareatan?

Ez dago aurreikusirik, baina toki enteak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebi- zitza Departamentuak hala erabakitzen dute, larreetarako alderdia gutxitu liteke.

12.- Erraztuko ote zaio Lotzako Kontzejuari, kalteordainen edo bestelako konpentsazioen bidez, dirusarreraren gutxitzea?

Larreetarako alderdia gutxitzeak Lotzako Kon- tzejuari diru-kalterik eraginen balio, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Depar- tamentuak hartuko luke bere gain, dagokion kalte- ordainaren bidez, Naturguneei eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legee- tan ezarritakoekin bat.

13.- Zer irizpideren arabera ezarriko dira kon- pentsazio araubide horiek? Zenbat eginen lukete gutzira?

Lotzako Putzuan egin beharreko erabilerari eta, antolamendu juridikoaren arabera, lehenagotik

eten gabe egiten ari ziren ohiko erabileren egitezeko mugapen berezien identifikazioari buruz erabakirik hartzen ez den bitartean ezin dira zenbatu sor litzaketen konpentsazio edo kalteordainak.

14.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak Lotzako Putzuko alderdia legez babesteko figurarik ezartzeko?

Adierazi bezala, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Legean aipatzen den Nafarroako Ereku Hezeen Inbentarioan

sartu du Lotzako Putzua eta berezko babes araubidea zehaztu, 3 eta 4 zenbakietan azaldu dena izanen dena.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluetan ezarrikoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 21a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Agudo

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Europako Batasuneko transferentzien esparru orokorraren azterketari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 18an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Europako Batasuneko transferentzien esparru orokorraren azterketari buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Europako Batasuneko transferentzien esparru orokorraren azterketari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (18. or.).
- II. Helburua (18. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (19. or.).
- IV. Ondorioak (19. or.).
- V. Sistemaren azalpen orokorra (20. or.).
 - V.1. E.Bko aurrekontua eta Espainiaren ekarpenen laburpena (20. or.).
 - V.2. Sistemaren azalpen orokorra (21. or.).
 - V.2.1. Fondoak (22. or.).
 - V.2.2. Ekimenak (23. or.).
 - V.2.3. Eskualdeen garapenerako beste hainbat jarduera (24. or.).
 - Programa espezifikoak (24. or.).
 - Ekintzak (24. or.).
 - Lerro finantzarioak (24. or.).
 - V.3. Programen eta ekimenen kudeaketa (25. or.).
- VI. Kontabilitate sistema. Jasotako baliabideak eta antolamendua (26. or.).

VI.1. Kontabilitate sistema eta jasotako baliabideak (26. or.).

VI.2. Antolamendua (27. or.).

Eraskinak (29. or.).

1 Eraskina. Espainiaren eta EEEn arteko jario finantzarioak (29. or.).

2 Eraskina. EBtik datozen dirusarrerak Nafarroako aurrekontuetan, departamentuen eta fondoan arabera (1990-1995 aldia) (30. or.).

I. SARRERA.

Espainiako politikak berebiziko aldaketa jasan zuen 1986 urteaz geroztik, orduko Europako Ekonomi Elkartean (EEE), egun Europako Batasuna (EB), sartu zenetik.

Egun hartatik Europako arautegiaren eragina lehen autonomoak ziren erabakietan gero eta handiago eta garrantzizkoago bihurtu da.

Ezinbestean, egoera honek modu berean ukitzen du Foru Komunitatea, eta EBn sartu ondorengo urteetan, beharrezkoa izan da hainbat jarra aldatzea, EBk bere kideei inposatzen dizkien betebeharren ondorioz.

Betebehar edo baldintza berriekin batera, EBko hainbat programatan parte hartzea ahalezko bihurtu da, baita finantzazioa lortzea ere Foru Komunitateko esparruan aurrera eraman beharrezko zenbait jarduketatarako.

Horregatik, Kontuen Ganbarak 1996ko ekitaldirako duen programan honako lan hau sartu da, hots, Nafarroako Gobernuak EBtik datozen dirusarrerak nola kudeatzen dituen aztertzen duena.

II. HELBURUA.

Europako Ekonomi Elkarreak hainbat tresna finantzario eratu zituen bere helburuak, batez ere eskualdeen arteko desoreka gutxiagotzea, bete ahal izateko. Tresnak hauek ziren: fondoak, eki-

menak eta ekintzak. Hauen artean inportanteenak Eskualdeen Garapenerako Europako Fondoa (EGEF-FEDER), Europako Gizarte Fondoa (EGF-FSE) eta Nekazaritza Berme eta Orientaziorako Europako Fondoa (NBOEF-FEOGA).

EBko gastuen aurrekontuak tresna finantzario guztientzako baliabideak biltzen ditu, eta ondoren Europako Batzordea da, Erabakien bidez, baliabideen banaketa kide diren Estaturen artean egiten duena (V. epigrafean zehazten da tresna finantzario hauen funtzionamendua nolakoa den).

Lan hau eginda nahi dena da tresna finantzario hauen funtzionamendua eta ezaugarriak nolakoak diren jakitea, eta aztertzea nolakoa den Nafarroako Gobernuaren jarduketara Europako baliabideak jasotzeko ondoren bere gastu-politikak finantzatu ahal izateko.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Europako laguntzak "fondoan" bidez gauzatu dira, baita helburu zehatz eta jakin dituzten beste hainbat laguntzaren bidez ere.

Nekazaritzarako laguntzak, Feogatik datozenak, gehienetan, nekazariarentzat dira, eta Kontuen Ganbara honek "Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuko nekazaritza baliabideak hobetzeko" Egitarauaren gainean egindako fiskalizazio txostenean aztertu zituen. Txostena 1995eko otsailaren 8ko 8 zk.ko NPAOn argitaratu zen.

Gainerako fondoak erabili ahal izateko, Nafarroako Gobernua departamentu guztien parte hartzea aintzat hartzen duen programa bat prestatzen ari da, Europako jarraibideen arabera, eta hantxe sartzen dira EBk kofinantzatzen ahal dituen ekintzak eta proiektuak.

Programen jarraipena eta Ekonomi Elkartearikiko harremanak (gastuen justifikazioa, laguntza-eskaerak eta programa betetzearekin loturik dauden gainerakoak) EBko Garapen Zerbitzuan zentralizatzen dira.

Departamentuek gastuak kudeazten dituzte eta agiriak gordetzen.

Gastu eta dirusarreraren biderapena kide diren Estaturen bidez egiten da, eta hauek dira laguntza-eskaerak Bruselara bidaltzen dituztenak.

Gure lanaren mamia izan da Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren menpeko EBko Eskualdeen Garapen Zerbitzuak koordinatzen dituen programa operatiboetan Nafarroako Gobernuaren esku harzteak nolakoa den ikustea.

Kudeaketa, biderapen eta kontabilitate-jardunbideak aztertu ditugu, eta horretarako beharrezkoztat jo ditugun sektore publikoko ikuskapen-arauen ondorio diren irizpideak eta frogak erabili ditugu, lanaren inguruabarrak eta baldintzak kontuan harturik.

Lanaren mugak aplikagarria den Europako legeriaren ondorio dira:

- Kide den Estatu bakoitzak, eskualdeekin batera, hala denean, egiten ditu programak. Hau da, eremua autonomia baino zabalagoa da.

- Kitapena eta azken ordainketa programa erabat bukatzen denean egiten da, eta ez autonomia-ri dagokion parte bukatzen denean.

- Beti izaten da "desoreka" bat eskatzen diren zenbatekoen (pezetatan) eta ematen diren zenbatekoen (ECUetan) artean, aldaketa-tipoan izaten diren gorabeheren ondorioz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko langileei, eta batez ere EBko Garapen Zerbitzuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

IV. ONDORIOAK.

Hona hemen gure lanetik atera ditugun ondorio garrantzizkoenak:

IV.1. ANTOLAMENDUAZ.

1. Nekazaritza Politika Amankomunaren garrantziaren ondorioz, Feogarekiko harreman guztiak Nekazaritza Departamentutik eramaten dira.

2. Gainerako fondoak (Feder, FSE) kudeatzearen ondorioz EBrekin izaten diren harremanak egitura iraunkorra mantendu ez eta beren funtzioak etengabe aldatu dituzten hainbat unitateren bidez ezarri dira.

IV.2. KUDEAKETAZ.

3. Kasurik gehienetan EBk onartzen dituen programek autonomiak baino eremu zabalagoa dute.

Horregatik betetze eta kitapeneko denbora okerren funtzionatzen duen administrazioaren esku dago, programa oso-osorik ixtea beharrezkoa baita kitapena egiteko.

4. Departamentuek onartzen diren programe-tako gastuak egiten dituzte, orokorrean, departamentuaren gastu normalak direla kontsideratuz, EBk kofinantziatzen dituen edo ez kontuan hartu gabe.

IV.3. JASOTAKO DIRUSARREREZ.

5. Nafarroako Aurrekontu Orokorretara iristen diren dirusarrerak eta Foru Komunitatean jasotzen direnak bereiztu behar dira.

Horrela, azken hauetan, aurrekontukoez aparte, udaletara, enpresetara, hiritarrengana iristen direnak sartu behar dira, baita beste hainbat entitatek (Estatua, Renfe...) komunitate honetan gas-tatuko dutena ere.

6. Zenbakiz garrantzikoena den kontusaila Feoga-garantía delakoaren bidez jasotzen da, hiritar pribatuek jasotzen dute eta Nafarroako aurrekontuetan ez dute adierazpenik. Kontuan hartu behar da fondo honek batasuneko gastu-aurrekontuaren ehuneko 50 egiten duela.

7. Gaur egungo banaketa-sistemarekin, eskualdea kudeatzea izendatu diren guztiak profita-tu ahal izateko jarduketak egitean datza, baina zaila da finantzazio gehiago lortzea, Bruselan kuotak izendatzen baitzaizkie Estatu kideei eta eskualdeei hainbat estatistika-parametroren araber (biztanlegoaren, langabeziaren arabera).

8. 1990 eta 1995 urteen artean Nafarroako Aurrekontu Orokorretan EBtik etorri diren 13.994 milioi kontabilizatu dira.

9. Orokorrean esanda, departamentuek interes handiagoa erakusten dute gastuak kudeatzeko dirusarrerak kudeatzeko baino, azken hauek normalean zerbait arrotz bezala hartzen baitira.

IV.4. KONTABILIZAZIOAZ.

10. Gaur egungo funtzionatzeko moduarekin oso zaila da gastuak eta dirusarrerak elkarren arteko harremanean jartzea.

Gastuak dagokion departamentuan erregistratzen dira, sortzapenaren irizpidearen arabera, eta dirusarrerak kutxaren irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

IV.5. JARDUKETEN OIHARTZUNAZ.

11. Foru Komunitateak duen eskumenen sistema aintzat hartuz, Europako fondoekin finantzatzen ahal diren jarduketak Nafarroako Gobernuak betetzen dituen jardueri dagozkie, batez ere.

12. Europako arautegiak behartzen du Europa-ko finantziarioa duten programek administrazio

nazionalen kofinantzazioa eduki dezaten (Estatua edo Autonomi Elkartea).

Horregatik, Europako programetan aurrez aurreikusitako jarduketak sartzen direla kontsideratzen badugu, Europako finantzazioak egin beharreko gastuen zenbatekoa murriztu egiten du.

Haatik, bestelako jardueri ekiten bazaie, Europako finantzazioa eskuratzeak gastua handitza dakar berarekin.

13. Nafarroako Gobernuak ez du azterketarik egin eta ez du jardunbiderik ezarri Europako fondo- bidez finantzaturiko neurrien oihartzuna baloratzeko. Batzordeak erabiltzen dituenak, gehienetan Europa mailan, ez dira ezagunak.

Azkenik eta etorkizunari begira garrantzikoa da azpimarratzea eskualde-izaerako helburuetan eskualde jakin bat sartzea hainbat adierazle sozioekonomikoren arabera egiten dela: biztanleko BPG, langabezia-tasa, industri-enpleguaren ehuneko, lehen sektorean enplegurikoa pertsonen kopurua eta egoera periferikoa, etab., eta hauek guztiek Europako batez bestekoekin duten harremanaren arabera.

Etorkizunean beste Estatu batzuk EBn sartzen badira, parametro hauek alda daitezke, eta, hortaz, Nafarroak Europako batez bestekoarekiko duen egoera ere ukitua gerta daiteke.

V. SISTEMAREN AZALPEN OROKORRA.

Epigrafe honetan EBren funtzionamenduari buruzko azalpen laburra egingo dugu, beti ere txosten honen ikuspegitik interesgarri jotzen ditugun alderdiak aintzat hartuz. Horretarako, egingo dugun lehen gauza aurrekontuaren osaketa eta Espainiako ekarpenak aurkeztea izango da; ondoren, EBk bere politika gauzatzeko erabiltzen dituen tresnen deskribapena egingo dugu.

V.1. EUROPAKO BATASUNEN GASTUEN AURREKONTUA.

1996 urtean onartu den aurrekontuak 81.888 milioi ECU (Mecu) jotzen du, gaur egungo mone-ta-aldaketaren arabera 13 bilioi pezeta.

Zenbateko hori honela banakatzen da, ehunekoetan:

	Ehunekoak
• Europako Batasuneko Erakundeak (Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Kontu Auzitegia, Biltzar Ekonomiko eta Soziala eta Eskualdeen Biltzarra)	5
• Fondoak:	82
Feoga-Garantía	50
Feoga-Orientación	5
Feder	13
Europako Gizarte Fondoa	7
Kohesio Fondoa	2
Europako Batasuneko ekimenak	3
Beste hainbat	2
• Europako Batasuneko politikak (Kanpoko ekintza, Energetikoa eta Ingurugiroa, I+G, etab)	12
• Erreserbak eta Bermea	1
Guztira	100

EBk bere aurrekontua finantzatzeko dituen baliabideak batez ere hiru iturritatik datoz:

- Ohiko baliabide berekiak (aduna-eskubideak, nekazaritza-ordainarazpenak, etab)
- BEZ baliabidea. Estatu kide guztietan berdin kalkulatu den oinarri bati ehuneko bat aplikatzea.
- BPG baliabidea. Estatu bakoitzak ekartzen duen baliabidea Barne Produktu Gordinaren arabera Europako Batasuneko aurrekontua orekatzeko.

Ondoren, 1986-1994 urteen arteko Espainia-EB jario finantzarioen laburpena ikus daiteke. 1. eraskinean jario hauen banakaketa aurkeztu dugu.

Urtea	(milioi pezetak)		
	Espainiaren ekarpena	Europako dirusarrerak	Saldoa
1986	110.886,0	102.480,7	- 8.405,3
1987	137.363,9	176.264,0	38.900,1
1988	222.992,7	384.990,6	161.997,9
1989	287.395,5	474.762,6	187.367,1
1990	374.640,0	501.023,9	126.383,9
1991	545.887,4	942.079,2	396.191,8
1992	647.789,9	979.039,2	331.249,3
1993	740.567,1	1.136.499,2	395.932,1
1994	803.408,4	1.155.161,2	351.752,8

Boletín Económico del ICETik hartuta, 2456 zk., Aurora Gallego Sánchez.

Saldo hauek ez dute esan nahi Espainiako aurrekontuek superabit horiek lortu dituenik, jario

horien parterik handiena ez baitu Estatuak jasotzen, hiritarrek baizik.

Foru Komunitatean dirusarrera horien parte bat jasotzen da, V. epigrafean aztertuko dugun bezala.

Ekarpenen aldetik, Nafarroak, indarreko Hitzarmen Ekonomiko Estatuarekin izenpetu eta gero, bereganatu ez dituen Estatuaren gastuen ehuneko 1,6 ordaintzen zama orokorren kontribuzioagatik, eta horien artean sartzen dira Europako aurrekontua finantzatzeko ekarpenak.

V.2. SISTEMAREN AZALPEN OROKORRA.

Europako Batasuna osatzen duten estatuak ez dira multzo homogenea, eta ikuspegi sozioekonomikotik alde handiak daude elkarren artean, eta honen ondorioz eskualdeen arteko desorekak badira.

Alde hauek txikiagotzeko Europako Batasuneko laguntzen politika sortu zen, gehienbat egiturazko fondoen bidez bideratzen direnak (Feder, FSE, Feoga-Orientación) eta Feoga-Garantia delakoaren bidez, baita beste hainbat tresna finantzarioen bidez ere.

Gastuen aurrekontu orokorrak fondo hauen banaketa biltzen du bere baitan, honez gero ikusi dugunez. Hauek aplikatuz kide diren Estatuaren ekarpenak banatzen dira politika ekonomiko eta sozialetako helburuak lortu ahal izateko.

Gastuen aurrekontu orokorrak fondo hauen banaketa biltzen du bere baitan, eta ondoren Europako Batzordea da, Erabakien bidez, baliabi-

deak banatzen dituen estatu kideen artean, fondoak eta helburuen arabera.

Espanian, Europako Batasuneko jarduketak oinarritzen dira, batez ere, Europako Batasuneko Nekazaritza Politika aplikatzean, batez ere, Feoga-Garantía delakoaren bidez finantzatzen dena. Horretaz aparte, garrantzizkoa da baita ere Egiturazko Fondoak bidez aurrera eramaten diren egiturazko ekintzak.

V.2.1. Egiturazko fondoak.

Egiturazko ekintzak Europako Batasuneko alderdi ezberdinen arteko desorekak murriztu nahi dituztenak dira, batez ere ekonomikoa eta soziala bultzatuz.

E.B.k egiten ditu egiturazko ekintza hauek egiturazko Fondo hauen bidez:

- Europako Eskualdeen Garapenerako Fondoak (EEGF-Feder)

- Europako Gizarte Fondoak (EGF-FES)

- Europako Nekazaritza Bermatzeko eta Orientatzeko Fondoak. Orientazio atala (ENBOF/Feoga-Orientación).

Fondo hauei, 1993 urteaz geroztik, beste hauek gaineratu behar zaizkie:

- Arrantza Orientatzeko Tresna Finantzieroa (AOTF-IFOP)

- Elkartasun Fondoak

1988 urtean lehentasunezko helburu batzuk ipini ziren, egiturazko fondo hauek erabiltzeko. Helburu hauek hainbat aldaketa izan dituzte 1993ko Egiturazko Fondoak erregelamendu berriak onartu zirenez geroztik, ondoren aipatuko direnak, hain justu:

Helburuak	Parte hartzen duten fondoak
1. Garapen gutxieneko eskualdeen garapena eta egiturazko doitzeara sustatzea.	Feder, FSE, Feoga-Orientación
2. Industria gainbeherak larri ukitutako eskualdeen birmoldaketa	Feder, FSE
3. Iraupen luzeko langabeziaren aurka borrokatzea, 25 urte baino gutxiagoko gazteen eta lan-merkatuak kanporatzeko arriskua duten pertsonen txertaketa profesionala erraztea	FSE
4. Langileak industria-aldaketei eta produkzio sistemen bilakaerari egoki dakizkien erraztea	FSE
5a. Nekazaritza-egituren egokitzea azkartzea eta arrantza modernizatzen eta birregituratzen laguntzea	Feoga-Orientación, IFOP
5b. Herri xeheen garapena eta egiturazko doitzeara	Feoga-Orientación, Feder, FSE

Egiturazko Fondo hauetatik portzentaia bat gordetzen da Europako Batasuneko Ekimenak finantzatzeko. Europako Batasuneko Ekimenak Batzordeak sortuta izaten dira, eta haien helburua da Europako Batasunean halako oihartzun berezia duten hainbat arazori aurre egitea, helburu bakoitzeko Europako Batasuneko Laguntza Esparruetan aurreikusten diren neurriak osatuz.

Helburuek eskualdearen arabera zedarritze zehatza eskatzen dute (1, 2, eta 5b helburuek). 2052/88 Erregelamenduak 89/93 epean aukeragarri izango ziren eremuak zedarritzeko irizpideak ezarri zituen, eta 2081/93 Erregelamenduak 94/99 epekoak. Nafarroako herrialdearen zati bat 2 eta 5b eremuetan sartuta dago.

Proiektuak finantzatzen dira bai Administrazio Zentralarekin elkarlanean, baita Autonomi Elkartee-

ekin, Toki Administrazioekin eta Enpresa Publikoekin elkarlanean ere.

Europako Egiturazko Fondoak estatu eta eskualdeei nola banatzen zaizkien zehazteko, fondo hauek arautzen dituzten Erregelamenduek ezartzen dituzten Helburuak hartzen dira kontuan. Finantzaziorik lortzekotan beharrezkoa da jarduketaren programa aurkeztea.

Hori dela eta, honako hauek egin behar dituzte estatu kideek:

- Eskualdeak garatzeko planak - 1 Helburua
- Eskualdeak birmoldatzeko planak - 2 Helburua
- Herri xeheak garatzeko planak - 5b Helburua

Plan hauek, funtsean, honako beste hauek zehaztu behar dituzte:

- Lortu nahi diren egiturazko fondoen helburuan sartzen diren eskualde eta eremuen arazoak.

- Administrazio nazional interesdunek erdietsi nahi dituzten helburuak.

- Garatu nahi dituzten estrategia eta jarduketak ardatzik nagusienak

- Estrategia eta ardatz hauei aurre egiteko garatu nahi diren inbertsioen aurreikuspena.

Batzordeak aztertzen ditu Estatuak aurkezten dituzten planak eta aztertu ez ezik eztabaidatu ere egiten ditu planok Estatuekin, eta horren ondoren Europako Batasuneko Laguntza Esparruak (MAC) prestatzen hasten dira.

Autonomi Elkarte bakoitzari banatzen zaion kopurua ez da Autonomi Elkarte honek duen negoziatzeko gaitasunaren menpekkoa; aitzitik, Batzordeak zehazten du erabilgarri diren baliabideen arabera eta eskualde bakoitza nola dagoen kontuan hartuz. Eskualdeen egoeraren nolakoa neurtzeko adierazle sozioekonomiko objektiboak erabiltzen dira.

MAC hauek kontratu izaera duten agiriak dira, eta Batzordea nola Estatu kidea behartuta daude bertan esaten dena betetzera. MAC hauek, euren programazioaren bidez, honako hauek biltzen dituzte:

- Europako Batasunak Estatu bati izendatzen dizkion baliabide guztien kopuru osoa, epe jakin batean eta helburu jakin baten arabera.

- Diru-kopuru hori egiturazko fondo guztien artean nola banatzen den.

- Baliabide horiei emango zaien erabilera, edo, gauza bera dena, egiturazko fondoekin kofinanziatuko diren lehentasunezko jarduketa-ardatz bakoitzari zenbateko diru-kopurua izendatuko zaion.

- Administrazio nazional eta inbertitzaile bakoitzak (Administrazio Zentrala, Autonomikoa, Toki Administrazioa, enpresa publikoak zein pribatuak, etab) ardatz bakoitzean erabiltzen ahal dituen egiturazko fondoen zenbateko osoa, nork bere eskumeneko esparruaren barruko jarduketak finantzateko.

- Ardatz bakoitzean aplikagarria den kofinanziazio-tasa, hau da, ardatz bakoitzean aplikagarria den parte hartzearen portzentaia egiturazko fondoak erabiltzeko.

- MAC hori praktikan egiturazko fondoak arautzen dituzten Erregelamenduek ezarritako hatsa-

penekin bat aplikatu dadin bete behar diren mota guztietako baldintzak.

MAC hauetan ezartzen diren egiturazko fondoen programazioa praktikan aplikatu ahal izateko eta Estatu kideek fondoak jaso ahal izateko beharrezkoa da Estatu kideek Programa Operatiboak presta ditzaten. Batzordeak onartu beharko ditu Programa Operatibo hauek. Hau Erregelamenduetan "parte hartzearen formak" izenpean biltzen da.

Programa operatiboak programazio-agiri oso zehatzak dira, proiektu zehatzak ere biltzen ditu, eta horien bidez MAC garatzen da, eta jarduketa jakin batzuk kofinantzatzeko fondo-eskaera bertan ezartzen da.

Batzordeak Programa operatibo hauek onartzen dituen hasi daiteke egiturazko fondoak eskatzen eta hartzen, Europako Batasunak horretarako egiten dituen transferentzien bidez.

V.2.2. Europako Batasuneko ekimenak.

Batzordeak sortzen ditu Europako Batasuneko ekimenak. Zuzenean onartzen ditu, Kontseiluaren parte hartzerik gabe, eta Europako Batasunean oihartzun berezirik duten hainbat arazori irtenbidea ematen laguntzea dute helburu, MAC delakoa aurreikusten dituen neurriak osatzeko.

Horrela programa operatiboaren bidez agerian gelditzen diren beharrak estaltzen dira, eta hauen osagarri moduan aurkezten dira, ez bereiz doazen programak balira bezala.

Programa Operatiboetan bezala, bere helburua da Europako kohesioa indartzea, Europako Batasuneko garapen ekonomiko eta sozial orekatuaren bidez, eta egiturazko politiken bost lehentasunezko helburuak lortzen laguntzen dute.

Hauek finantzatzeko egiturazko fondoen ehuneko txiki bat gorde ohi da, programa osagarriak baizik ez direnez.

Hiru egiturazko fondoak eta Europako Batasuneko gainerako tresna finantzarioak aplikatu daitezke, denak batera edo bakarka ageri dakizkigukeelarik.

Lehen fasean –89/93– hiru kategoria bereiz daitezke:

- Europako Batasuneko beste hainbat politikak sortu dituen arazoei irtenbidea bilatzen dietenak.

- Europako Batasuneko neurriak aplikatzea errazten dutenak.

- Zenbait eskualdetan amankomunak diren arazoei irtenbidea bilatzen dietenak.

1994-1999 aldirako Europako Batasuneko Eki-
men berri batzuk ezartzen dira, parte hartze inte-
gratuen bidez enplegua sustatzea helburu dauka-
tenak, eta zazpi gai funtsezkoen inguruan
antolatzen direnak:

- Lankidetzeta eta mugaz gaindiko sareak,
nazioaz haraindikoak eta eskualdeen artekoak.
- Herri xeheen garapena
- Eskualde ultraperiferikoak
- Giza-baliabideen erabilera eta garapena.
- Industria aldaketaren kudeaketa.
- Krisialdian murgildutako hirietako auzoen
garapena.
- Arrantzaren sektorearen berregituraketa.

Hauetako batzuk berriak dira eta beste batzuk
lehenagoko neurriak bere gain hartzen edo luza-
tzen dituzte.

Programa Operatiboan moduan aurkez daitez-
ke, edo eta dirulaguntza orokorren moduan ere.
Horietako batzuk eskualdetuak daude, hau da,
eskualdeek har dezaketzen dirulaguntza aurrez
ezarrita dago. Beste hainbat kasutan, ordea,
eskualdeak lor dezakeen dirulaguntza aurkezten
duen proiektuaren kalitatearen arabera izango
da.

V.2.3. Eskualdeak garatzeko beste hainbat ekintza.

Programa espezifikokoak

Programa osagarriak dira eta Egiturazko Fon-
doen esku hartzetik kanpo daude. Bere gain har-
tzen dituzten gaiak honako hauek dira, besteak
beste: eremu siderurgikoen birmoldaketa, untzi-
gintzarena, kide ez diren estatuekiko lankidetzeta,
lan-bizian zeharkako lanbide heziketaren garape-
na. etab.

Europako Batasuneko beste hainbat politikari
erantzuna emateko sortzen dira, eta Estatuek egi-
ten dituzte.

1994 urtera arte, programa hauek izan dira:

FORCE: Etengabeko lanbide heziketa.

MIRIAM: Herri xehetegi buruzko eta nekazaritza
merkatuei buruzko informazio-sarea.

RECHAR: Ikatza-eremuen birmoldaketa.

RENAVAL: Untzigintza-eremuen birmoldaketa.

RESIDER: siderurgia-eremuen birmoldaketa.

THERMIE: Teknologia energetikoen sustapena.

Ekintzak (Appels d'offre)

Europako Batasunak bertako lehentasunezko
politiketan sartzen diren proiektuei laguntzeko ire-
kitzen dituen lerro finantzarioak dira.

Europako Batasunaren eta proiektuak susta-
tzen direnen arteko harremanak zuzenak dira,
estatu kideen bitartekaritza beharrezkoa ez dela-
rik.

Ekintza hauek programa guztiekin bateraga-
rriak dira, baina ez proiektu berberaren gainean
ari garela. Zientzia-ikerketa eta ikerketa teknikoan
erabiltzen dira, baita hezkuntza politiketan ere.

Ekintzak hauexek dira:

- ALTENER: Energia berriztagarrien sustapena.
- CALEIDOSCOPIO: sormen artistikoa eta kultura-
ondarearen ezagutza.
- COMETT: Unibertsitateen eta enpresen arteko
lankidetzeta prestakuntza teknologikoen alorrean.
- ERASMUS-SOCRATES: Unibertsitateko irakasle-
en mugikortasunaren sustapena.
- EUROPA MINBIZIAREN AURKA.
- EUROPA HIESAREN AURKA.
- HELIOS: elbarrien aldekoa.
- ILE: emakumeen aldetiko toki enplegu-susta-
pena.
- GAZTERIA EUROPAREKIN: 15 eta 25 urteko gaz-
teen arteko truke kulturalak eta sozialak.
- PETRA: Gazteak bizia heldu eta profesionale-
rako prestatzea eta hezitzea.
- SPRINT: Teknologien berrikuntza eta eskual-
datzea.
- TEMPUS: Unibertsitateko irakasleen Europaz
harantzagoko mugikortasuna, Ekialdeko eta
Erdialdeko Europarekin.
- VALOREN: Potentzial energetiko endogenoa-
ren profitatzea.

Lerro finantzarioak

Esperimentalak dira. Estatua bera da Europa-
ko Batasunarekin negoziatzen duena.

Orain arte bi proiektu daude:

- LIFE: Ingurugiroarentzako tresna finantzarioa.
- APERTURA: E.B.ko eskualdeen eta Europako
Ekialdeko estatuen arteko sarea.

V.3. PROGRAMA ETA EKIMENEN KUDEA-KETA.

V.3.1. Programak.

Programetan ezartzen diren laguntzak lortzeko jarraitu behar den bide logikoa honako hau da:

- Plana Batzordearen aurrean aurkeztea.
- MAC negoziatzea.
- Laguntzak eskatzea, gehienetan programa operatiboen formapean.

Estatu bakoitzak negoziatu behar du Batzordean nola eta zertan erabiliko duen iristen zaizkion egiturazko fondoetako baliabideen partea. Negoziazioaren emaitza MAC delakoetan islatzen da.

MAC delako horretan jasotzen dira, beste hainbat gauzaren artean, kohesio ekonomikoa eta soziala bultzatzeko zer sektore, gai edo lehentasuneko ardatzetan inbertituko den, eta jarduketak bakoitzean erabiliko den diru-kopurua.

MAC delakoa Batzordea eta Estatuaren artean negoziatzen den agiria den arren, formaren aldetik Batzordearen Erabakia da, asmoen aldarrikapen modukoa.

MAC direlakoak egin eta gero, laguntza-eskaerak bat etorri behar dute bertan adierazten diren aurreikuspenekin. Esku hartzeko modurik ohikoenak Programa Operatiboa izaten da.

Eskualde-izaerako helburuei dagozkien laguntzak aurrez ezarrita daude.

Eskualde bakoitzari dagokion zenbatekoari begiratzen badiogu –Espainiako kasuan Autonomi Elkarte bakoitzari esan beharko genuke–, fondo bakoitzaren laguntzak Erakundearen arabera dardela banatuta ikusten dugu –Administrazio Zentral, Autonomikoa, Toki Administrazioa eta enpresa publikoak–, eta 2 helburuaren kasuan eskualdearen eta eskualdeaniztasunaren arabera, azken hau Administrazio Zentralak eskualdean edo Autonomi Elkartean egiten dituen proiektu edo ekintzei dagokielerik.

Eskualdeko programan, bere osotasunean Autonomi Elkarteari badagokio ere, hainbat erakundek hartzen du esku, eta beraz ez dagokio oso-osorik administrazio autonomikoari, gure kasuan Nafarroako Gobernuari.

Nafarroako Gobernuari dagozkion programa operatiboak Nekazaritza Departamentuaren bitartez bideratzen dira –5b Helburua, Feoga–, eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren bidez –2 eta 3 Helburua, Feder eta FSE–.

Programa operatiboak egiteko, Nafarroako Gobernuak, departamentu bakoitzaren aurrekontuaren barruan, aintzat hartzen ditu EBk finantzatzeko dituenekin bat datozen ekintzak eta proiektuak.

Programak eta Europako Batasunarekiko harremanak jarraitzea: gastuen justifikazioa, laguntzen eskaera eta programa betetzearekin batera sor daitzekeen gai guztiak, horiek denak E.B.ko Garapen Zerbitzuan biltzen dira. Departamentuen ardura da gastuak kudeatzea, hainbeste behin egindakoen gaineko ziurtagiriak egitea, eta beraiek dira gastu horiei dagozkien agiriak gordetzen dituztenak.

Gastuen eta dirusarreraren biderapena Estatu kideen bidez egiten da. Hauek bidaltzen dituzte Bruselara dirusarreraren eskaerak eta gastuen justifikazioak.

Diruak gobernu zentralak jasotzen ditu, eta ondoren behar diren banaketak egiten ditu.

Gastuen justifikazioa ere Madrila bidaltzen dira, eta han biltzen dira justifikazio guztiak, eta behin denak lortu direnean Bruselan aurkezten dira.

Estatu osoarentzat gastu-justifikazio guztiak batera egin behar direnez, atzerapenak egon daitetzeke, eta are, egon egoten dira, Autonomi Elkarte guztiek ez baitituzte aurkezten egun berean euren gastuen justifikazioak.

Honi gehitzen badiogu Batzordeak luzapenak onartzen ahal dituela, ulertzekoa da programak, eta euren azken kitapena, noski, denboran atzeratzea.

Ikusten ahal izan da 2 Helburuan aurreikusitako laguntzak 90/91 eta 92/93 epeetarako bere osotasunean bete direla.

Egiturazko fondo hauen bidez finantzatzen diren proiektuen eta ekintzen inguruabarrak diren bezala direla, laguntza hauek Nafarroako Gobernuarentzat finantzazio-iturri osagarriak dira, eta dirusarreraren kontabilizatzeko modua kontuan hartuz, finantziario osagarri hau, dirudienez, urtu da kontabilizatu den ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren betetzean.

1995 eta 1996ko aurrekontuen legeek Europa-ko Batasuneko fondoaren konturako eta Toki Administrazio Departamentuko eskumenekoak diren azpiegiturarako inbertsioen plan osagarria egitea aurreikusuten dute. Plan honek EBtik urtean jasotzen diren dirusarrek jotzen duten adina joko du.

V.3.2. Ekimenak.

Biderapena Estatu kideen bidez egiten da, eta ekimenetan programa operatibo bana aurkeztu behar da.

Europako Batasuneko ekimenak, helburuaren arabera, bertako eskualde edo eremu jakinetan bidera daitezke.

Hasiera batean laguntzak kide diren herrien artean banatzen dira, eta hauen barruan, Espainiaren kasuan bereziki, Europako Batasuneko programa batez ere Autonomi Elkarleen bidez gauzatzen da.

Nafarroan, EBko Eskualdeen Garapen Zerbitzua harremanetan jartzen da Nafarroako Gobernu departamentuekin, baita ekimen bakoitzera eskatzen diren ezaugarriak biltzen eta ekimenak proposatzen ahal dituzten erakunde eta enpresekin.

Nafarroako Gobernuak ez diren enpresek eta erakundeek proposatzen dituzten ekintzak behar diren departamentuetan banatzen dira bertan bideragarritasuna eta finantzatzeko posibilitatea aztertzeko, finantzazioaren zati bat Nafarroako Gobernuaren kontura baita, eta ondoren Europako Batasuneko Programa eta Ekimenen Atalera bidaltzen dira berriro, Nafarroako Gobernuko ekintzak bezala sartuko ote diren edo ez ikusteko.

Nafarroako Gobernuak bultzatzen dituen ekintzak Madrilen aurkezten dira nazioko programaren barruan sar daitezten. Sartzen direlarik parte hartzen ahal duten Autonomi Elkarre guztiek laguntzak izan ditzaten saiatzen da, laguntza hauek handiagoak edo txikiagoak direlarik.

Nafarroako Gobernuak bere baitan hartzen ez dituen ekintzak Madrilen aurkez ditzakete proposatu dituzten erakundeek edo enpresek, eta nazioko programan sartzen badituzte laguntza zuzenean jasoko dute.

Kontabilitate-sistemaren nolakoa eta azken kitapenak egitean gertatzen den atzerapena kontuan hartuz, are eta gehiago Europako Batasuneko Ekimenen kasu hauetan, zeinetan azken kitapena egiteko kide diren herri guztien justifikazioa beharrezkoa baita, gastu eta dirusarreraren korrelazioa ezartzea ia ezinezkoa da.

VI. KONTABILITATE SISTEMA. JASOTAKO BALIABIDEAK ETA ANTOLAMENDUA.

VI.1. KONTABILITATE SISTEMA ETA JASOTAKO BALIABIDEAK

EBk ez du bere erregelamenduetan ezartzen inolako baldintzarik Europako laguntzen bidez

finantzatzen diren ekintzak kontabilizatzeko. Alabaina, programen onarpenean zera eskatzen du: Egiturazko Fondoek kofinantzatzen duten operazioetan esku hartzen duten entitate guztiek kontabilitate sistema independente izan dezaten, edo eta egiaztatzea ahalezkoa egingo duen kodifikazioa. Era berean, Estatu kideak fondoak esandako helburuetan gastatuko direla bermatzea derrigorrezkoa dela dio.

Nafarroako Gobernuak, gastuak kontabilizatzeko dituenean, ez du Europako Batasunak laguntzen dituen gastuen eta izaera berekoak diren baino Europako Batasuneko laguntzarik ez duten gainerako gastuen arteko bereizketarik egiten, nahiz eta azken aurrekontuetan bi kontzeptu hauek bereizten dituzten kontabilitate-lerroak handiagotzen ari badira ere.

Bi Departamentuk kontrolatzen dituzte Europa Batasuneko Fondoak: Nekazaritzak Feogak finantzatzen dituen ekintza guztiak kontrolatzen ditu, eta Ekonomi eta Ogasunak gainerakoak.

Azken hauetaz arduratuko gara.

Gastuak justifikatzeko nahikoa da hauek ziurtatzea benetan ordaindu diren urtean. Ekintza finantzatuak dituzten Departamentuek bidaltzen dituzte ziurtatu hauek Ekonomi eta Ogasun Departamentuko EBko Eskualdeen Garapen Zerbitzura, eta azken honek koordinatu eta Madrila bidaltzen ditu.

Dirusarrerak direla eta, hauek EBk finantzatzen dituen ekintzak egiten dituzten Departamentuetako aurrekontuetan kontabilizatzeko dira.

Dirusarrerak kontabilizatzerakoan kuxaren irizpidea erabiltzen da. Europako Batasuneko dirusarrera bat iristen denean, hau EBko Eskualdeen Garapen Zerbitzura bidaltzen da, bere ekintzak banakatzeko. Banakaketa honen bidez dirusarrera hori zer departamenturi eta zer fondori dagokien, eta kontabilizatu egiten da.

Hasieran behintzat programek zehazten dituzte bere iraunaldi osoko urteko gastuak eta dirusarrerak.

Aurreikusten denaren arabera, dirusarrerak honelaxe egingo dira:

- Urteko ehuneko 50 aurrerakina da.
- Urteko ehuneko 30 urteko gastuaren ehuneko hainbat justifikatzen denean.
- Gainerako ehuneko 20 gastu guztia justifikatzen denean.

Hainbat gauzak alda dezake, eta aldatu egiten du, aldatu ere, sistema hau, hala nola:

- Batzordeak zati bakarreko tratamendua ematea erabakitzeak, aurrez ezarritako urteko sariak ahaztuz.

- Betetzea denboran zehar luzatzeak, luzamendua eska eta onartzeak eta, ondorioz, ordainketa eta gastuak justifikatzeko epea luzatzeak.

Gainera, ondorengo hau ere aintzat hartu beharrekoa da:

- Laguntzak Ecu direlakoetan onartzen dira, eta kobrantzak pezetatan egiten, Brusselak laguntzak ematen dituen eguneko aldaketaren arabera.

- Programak berraztertu egiten dira, besteak beste gaurkotu egin behar direlako, onartzen diren laguntzak Ecu iraunkorretan onartzen baitira.

- Programen ixtea batzuetan luzatu egiten da.

Honek guztiak oso zail egiten du dirusarreraren aurrekontua egitea, eta beste alde batetik, denboran ez datoz bat gastuak noiz kontabilizatzen

diren (gastuak egiten direnean) eta dirusarrerak noiz kontabilizatzen diren (kobratzen direnean).

Horrela, adibidez, MAC 90/91 delakoaren arabera, Nafarroari, 1989 urtean eta Feder fondoak zirela, 17,17 Mecu zegozkion. Ondoren, 1990 eta 1991 urteei dagokien urteko kopuruak gaurkotzen dira eta azkenik kopuruak 18,3 Mecu jotzen du.

Epe honen barruan Nafarroako programako ekintzetan aldaketak gertatzen dira, ekintzak batekik bestera aldatzen direlarik, baina finantzazioa ez da aldatzen.

Azken kitapena, izan diren atzerapenak eta luzapenak direla medio, 1995 urtean egin da.

Programa kitatzeko dagoen epe luzeak, aurrekontuak pezetatan egitea eta dirulaguntzak ECUtan emateak, eta pezeta-ECU arteko baliokidetzan gertatzen diren aldaketek zaildu egiten dute behar bezalako aurrekontua egitea eta dirusarrera hauen kontabilitate egokia eramatea.

1990 urteaz geroztik honako dirusarrera hauek kontabilizatu dira kontu bakoitzean:

Fondoak	1990	1991	1992	1993	1994	1995	Guztira
Feoga	108	389	1.202	1.943	1.568	1.602	6.812
FSE	35	88	132	203	181	1.046	1.685
Feder	264	478	251	1.246	448	1.668	5.355
Beste hainbat	9	14	11	14	39	55	142
Urtean, guztira	416	969	2.596	3.406	2.236	4.371	13.994

2. eraskinean zehazten dira gehiago dirusarrera hauek.

Aurrekontuaren betetze egoera aztertuz, eta, hein batean, lehen esan dugunaren ondorioz, ikusten da ondorengo hau:

- Aurrekontuan sartzen diren eta betetzen ez diren lerroak.
- Oso betetze maila txikiko lerroak.
- Hasieran aurrekontuan sartu ez diren eta gero betetzen diren lerroak.

Behar diren tresnak ezarri behar dira aurrekontuak egiten direnean bertan sar daitezela gero benetan egingo diren gastuak.

Aurrekontu orokorretako dirusarrera hauetatik aparte, Foru Komunitatearentzat diren beste batzuk ere badaude, nahiz eta zenbateko osoak zenbat jotzen duen jakitea ezinezkoa izan.

Alabaina, eta zenbateko garrantzia duten ikusteko, esan dezakegu 1995 urtean Nekazaritza

Departamentuak Feoga Garantía delakoaren laguntzak kudeatu zituela, eta laguntza hauek 13.000 milioi pezeta baino gehiago jotzen zutela.

VI.2. ANTOLAMENDUA. EBREKIN HARREMANETAN DAUDEN DEPARTAMENTUAK.

Nafarroako Gobernuak bi Departamentuk kudeatzen dituzte Europako fondoak:

- Nekazaritza Departamentuak Feogaren laguntzak kudeatzen ditu, bai Orientación delakoarenak eta bai Garantía delakoarenak ere.

- Ekonomi eta Ogasun Departamentuak kudeatzen ditu, 1995 urteaz geroztik, Feder eta FSE laguntzak.

Lanaren norainokoarekin bat, Feder eta FSE laguntzak aztertuko ditugu bereziki, Feogaren laguntzak beste hainbatetan izan direlako Kontuen Ganbararen aztergai, batez ere Nekazaritza Departamentuan egin diren lanak zirela-eta.

Gainera, esna behar da edozein departamentu izan daitekeela Europako fondoekin finantzaturiko programetako gastuak betetzeko arduradun, eta Lehendakaritza Departamentuak ordezkariak izan dituela.

1991 urtera arte EBrekiko harremanak Europako Aferen Atalaren bidez bideratzen ziren. Atal hau Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Nagusiaren menpe dago.

1992 urtean, atal hau Lehendakaritza Departamentuaren menpe egotera pasatu zen, eta urriaren 26ko 320/92 Foru Dekretuaren bidez Kanpo Ekintzarako Zerbitzua eratu zen, Lehendakariaren Idazkaritza Nagusian sartuta, honako Atal hauek dituen:

- Plangintza Atala.
- Herrialde Ekintzarako Atala.
- Kanpo Ekintzarako Atala.

Abenduaren 13ko 375/93 Foru Dekretuak egitura hau aldatu zuen, eta beste Zerbitzu hauek eratu zituen:

- EBko aferei buruzko Informazio Zerbitzua, ondorengo atal hauek dituen:

- a) Programak Koordinatzeko Atala.
- b) Informazioa Hedatzeko Atala.

- EBko Eskualdeen Garapen Zerbitzua, ondorengo atal hauek dituen:

- a) Europako Batasuneko Ekimenen Atala
- b) Erakundeen Atala.

Abuztuaren 3ko 184/95 Foru Dekretuak Ekonomi eta Ogasun Departamentuko egitura organikoa ezartzen du, eta honi aldatzen zaizkio Lehendakaritza Departamentuak EBri buruzko aferen gainean informazioa emateko eskumenak, ordezkariak instituzionalaren eginbeharrak salbu, hauek aipatu departamentuan segitzen dutelarik.

EBko Eskualdeen Garapen Zerbitzua Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren titularrari atxiki zaio, eta atal hauek ditu:

- a) Europako Batasuneko Programa eta Ekimenen Atala.
- b) Europako Batasunari buruzko Informazio Atala.

Irailaren 18ko 349/95 Foru Dekretuak Lehendakaritza Departamentuko egitura organikoa ezarri zuen, eta horren barruan sartu zuen Kanpo Ekintzarako Zerbitzua, bere Eskualdez gaineko

Erakundeen atalarekin, Lehendakaritza Kontseilariari atxikia dagoena.

Horretaz gainera, Foru Komunitateak delegazio iraunkorra ireki du Bruselan.

Aurreko lerroaldean ondorioz ikus daitekeen bezala, Europarekiko harremanak arduratzen diren unitate organikoek etengabeko izen, toki eta egin-kizun-aldaketa izan dituzte.

Gaur egun, esan dezakegu Lehendakaritza Departamentuak dauzkala ordezkari-eginkizunak (Kanpo Ekintzarako Zerbitzua) eta Ekonomiak, EBko Eskualdeen Garapen Zerbitzuaren bidez, informazio-eginkizunak (Europako Batasunari buruzko Informazio Zerbitzua) zein Europako Batasuneko Programa eta Ekimenen Atalari dagozkionak:

- Europako Batasuneko Laguntza Esparruak (MAC) direlakoan Programa Operatiboaren prestakuntza eta biderapena, 5b helburuari dagozkionak izan ezik, hauek Nekazaritza Departamentuak bideratzen baititu.

- MAC direlakoan Programa Operatiboaren bete-tearen jarraipena.

- MAC direlakoan Programa Operatiboaren bete-tearen jarraipen-batzordeetan Departamentuekin, unitateekin eta entitate betearazleekin era koordinatuan esku hartzea.

- EBk kofinantzatzen dituen Programa Operatiboaren dirusarreraren kontrola.

- Nafarroako Gobernuak EBko proiektu berezietan eta Europako Batasuneko Ekimenetan parte hartzearen ondoriozko proiektuen eta espedienteen biderapena, koordinazioa eta kudeaketa.

- Proiektu berezi eta Europako Batasuneko Ekimenen Dirulaguntza Orokor edo Programa Operatiboaren bete-tearen kontrola eta jarraipena, Foru Komunitateko esparruan.

- Europako Batasuneko Ekimenetan, dirulaguntza orokor edo Programa Operatiboaren gas-tuen eta dirusarreraren kontrola.

- Estatuaren inbertsio publikoari eta eskualdeei buruzko politikarekin koordinatzea, eta Europako Batasuneko fondoekin kofinantzatu behar diren Proiektuetako gastu eta dirusarrerari buruzko proposamenak prestatzea.

Iruñean, 1996ko azaroaren 8a

Lehendakaria: Javier Tuñón San Martín

ERASKINAK.

**1. ERASKINA. ESPAINIAREN ETA EUROPAKO ELKARTEEN ARTEKO JARIO
FINANTZARIOEN BILAKAERA 1986-1994 ARTEKO EPEAN
(milioi pezetatan)**

Kontzeptua	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994
I. Espainiaren ekarpenak Europ Elkarteei	110.886,0	137.363,9	222.992,7	287.395,5	374.640,0	545.640,4	647.789,9	740.567,1	803.408,4
I.1. Ohiko baliabideak	27.253,7	68.838,5	84.666,6	83.199,6	81.913,6	100.879,6	101.626,8	88.978,5	93.956,8
Aduana-eskubideak	26.461,3	54.526,1	57.316,3	64.858,9	66.142,9	75.064,4	81.724,8	74.771,1	81.909,6
Nekazaritza-ordainarazpenak	1.400,2	10.934,3	27.502,2	18.523,3	18.871,8	29.217,7	25.768,9	17.527,8	11.595,9
Azukrearen eta isoglukosaren kotizazioa	2.011,4	7.544,6	13.075,6	8.923,8	6.000,2	7.805,8	5.412,5	6.565,5	19.890,7
100eko 10, pertzepzio-gastuak	-2.619,2	-4.230,1	13.227,5	-9.230,2	-9.101,3	-11.208,3	-11.290,2	-9.886,1	-10.439,4
Atzerapen-korrituak	0,0	63,6	0,0	123,8	0,0	0,0	10,8	0,2	0,0
I.2. BEZ gordina	83.632,3	68.525,4	138.326,1	152.726,6	280.316,3	359.618,2	444.083,5	485.260,9	432.313,2
Ekarpena BEZ dela eta	289.235,3	257.881,9	276.900,1	289.133,3	370.551,1	397.034,9	457.919,5	513.262,4	536.647,6
Itzulera	-205.603,0	-189.356,5	-138.574,0	-136.406,7	-90.234,8	-37.483,7	-13.990,2	28.001,5	-104.418,1
Atzerapen-korrituak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	67,0	154,2	0,0	83,7
I.3. BPG gordina	0,0	0,0	0,0	43.757,5	1.650,0	72.435,2	87.648,1	150.707,4	259.625,7
Ekarpena BPG dela eta	0,0	0,0	0,0	86.498,8	7.493,3	76.240,0	90.429,2	153.400,2	283.930,0
Itzulera	0,0	0,0	0,0	-42.741,3	-5.843,3	-3.804,8	-2.781,4	-2.692,8	-24.304,3
Atzerapen-korrituak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	9,3	0,0	0,0
I.4. FED	0,0	0,0	0,0	7.711,8	10.757,2	12.954,4	14.431,5	15.620,3	17.512,7
I.5. Euratom	0,0	0,0	0,0	0,0	2,9	0,0	0,0	0,0	0,0
II. Europ. Elkar. etorriko dirusarrerak	102.480,7	176.264,0	384.990,6	474.762,6	501.023,9	942.079,2	979.039,2	1.136.499,2	1.155.161,2
II.1. Feoga-Garantía	37.898,0	87.331,8	259.075,3	248.364,5	271.603,7	423.934,6	456.500,5	595.348,7	694.065,2
II.2. Feoga-O eta sek. beste hainbat baliabide	0,0	2.849,8	9.568,0	36.353,2	26.627,2	82.055,4	84.642,5	111.662,8	51.843,8
Feoga-Orientación	0,0	2.334,4	5.897,5	26.359,5	15.545,0	72.348,4	75.782,5	72.244,9	24.079,9
Nekaz. eta arrantza sek. beste hainbat baliabide	0,0	0,0	1.041,2	3.565,3	4.433,7	2.474,3	4.907,0	32.377,9	22.834,6
Diruzaintz. pasa ez diren beste hainbat baliabide	0,0	515,4	2.629,3	6.428,4	6.648,5	7.232,7	3.953,0	7.040,0	4.929,3
II.3 FEDER	40.457,5	48.277,2	69.596,4	115.659,6	138.184,4	283.234,7	313.371,2	279.988,4	259.630,4
II.4 FSE	23.918,4	37.592,6	38.655,0	64.328,1	53.078,5	134.292,8	106.965,4	105.544,8	77.272,4
II.5. Kohesiorako Finantzazio baliabideak								32.448,9	60.566,5
II.6. Beste hainbat	206,8	212,6	8.095,9	10.057,2	11.530,1	18.561,7	16.559,6	11.505,6	11.792,9
CECA	-	-	-	-	961,4	7.082,9	2.478,1	2.911,7	2.863,3
Konpentsazio finantzarioak	206,8	212,6	3.587,3	6.114,8	4.774,3	5.545,4	6.479,3	29,5	0,0
Korritu finantzarioak	0,0	0,0	944,5	2.316,3	2.926,1	4.790,7	5.1670,0	6.728,7	6.242,0
Beste hainbat dirulaguntza	0,0	0,0	3.564,1	1.626,1	868,3	1.142,7	2.432,2	1.835,7	2.687,6
III. Saldo finantzarioa (II-I)	-8.405,3	38.900,1	161.997,9	187.367,1	126.383,9	396.191,8	331.249,3	395.932,1	351.752,8

Iturria: D.G. Tesoro eta Política Financiera, MAP

2. ERASKINA. EBTIK DATOZEN DIRUSARRERAK NAFARROAKO AURREKONTUETAN, DEPARTAMENTUKA ETA FONDOKA (1990-1995 EPEA)
Europako Batasuneko dirusarrerak, departamentuka (1990-1995 epea)

Departamentua	1990			1991			1992			1993			1994			1995										
	FEOGA	FSE	BESTE GIZTI.	FEOGA	FSE	BESTE GIZTI.	FEOGA	FSE	BESTE GIZTI.	FEOGA	FSE	BESTE GIZTI.	FEOGA	FSE	BESTE GIZTI.	FEOGA	FSE	BESTE GIZTI.								
Lehendakaritza	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	14								
Ekonomi eta Ogasuna	0	226	0	0	91	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0								
Toki Administrazioa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	227								
L.A. eta Ingunerua	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	188	0	0	23	23	0	299								
Hezkuntza eta Kultura	0	7	0	0	0	0	0	93	0	0	53	0	64	0	64	0	950	15								
Osasuna	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	5	0	0	0	12	0	0	18								
Herrilan, Gaitzaio eta Kom.	0	0	0	0	124	0	0	677	0	587	0	0	0	259	0	0	463	0								
Nekaz. Abeltz. eta Mendiak	108	1	0	0	389	0	1.202	14	64	2	1.831	1.755	76	0	1.638	1.391	26	0								
Ind. Merk. Turism. eta Lan	0	0	38	0	263	4	0	25	509	4	538	0	74	603	0	0	63	899								
Giz. Ong. Kirol eta Etxeb.	0	27	0	0	88	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	7	0								
Guztira	108	35	264	9	417	389	1.202	132	1.251	11	2.596	1.943	203	1.246	14	3.406	1.568	181	448	39	2.238	1.602	1.046	1.668	55	4.370

Europako Batasunetik datozen dirusarrerak, fondoka (1990-1995 epea)

Egiturazko fondoak	1990	1991	1992	1993	1994	1995	Total
Feoga	108	389	1.202	1.943	1.566	1.602	6.812
FSE	35	88	132	203	181	1.046	1.685
Feder	264	478	1.251	1.246	446	1.668	5.355
Beste hainbat	9	14	11	14	39	55	142
Urtean, guztira	416	969	2.596	3.406	2.236	4.371	13.994

H Sails:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

21/1997 Foru Dekretua, otsailaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, 21/1997 Foru Dekretua, otsailaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, berrestea erabaki zuen. Dekretu hori 1997ko otsailaren 14ko 20 zk.ko

Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 1997ko otsailaren 21eko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 26a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--